

Arrasate

P R E S S


ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 31 / 616. zenbakia

ARRASATE TXURIURDIN

Astelehenean, Arrasate Txuriurdin jarraitzaile taldea aurkeztu zuten,
Realeko hamabigarren jokalaria



1 euskal selekzioaren cd-rom jokoa



**eskatu
orain!**

902 010 735
Telefona 24 orduz.

Imajina dezakezun guztia!




Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!



Aukera ezazu taktikarik egokiena

Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...
Jokoaren estatistikak
Jokaldi onenen errepikapenak...
Lau futbol zelai aukeran.
Partiduak egunez, gauez, euriarekin...



euskal selekzioaren bufanda
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean, 72 orduan bidaltze gasturik gabe



**35,95
euro**

Jokoa orain erosiz gero, bufanda eta garraioa

DOAN

KALEINKESTA/ Ikusi dozu Industria Erakusketie? Hori egittie idea ona dala pentsetan jatzu?



MARI KARMEN BURGOS
Langillie

Ondiokan ez dot ikusi, bai-
ñe ikusteko interesa dau-
ket. Oso interesantie dala
guntzun dot, eta horretxe-
gatik gure dot ikusi. Oso
inportantie da daukogune
eta euki dogune ezaguketie.



PITER ENCINAS
Langillie

Ondiokan ez dot ikusi, bai-
ñe ikusteko gogüe dauket.
Oso politte dala eta oso gau-
za interesantiek daguzela
esan dustie. Baiñe lekue ez
da onena, batzueandako hara
gotie gatxa da-eta.



GARIKOITZ LETE
Langillie

Ez neuken erakusketa
horren barririk. Oso idea
ona dala pentsetan jat,
hamen tailler mordue egon
dielako. Iraganien ze egon
dan eta lana zelan egitten
zan jakittie inportantie da.



JOSU ONANDIA
Langillie

Behin juen nintzen, baiñe
itxitte euen, eta ez naz barri-
ro be bueltau. Interesantie
izengo dala pentsetan jat.
Neuk be industrian egitten
dot lan, eta horren iragana
ezagutu gure dot.



JUSTINA GISASOLA
Jubilaue

Ez dot ondiokan ikusi eta,
egixe esatiarren, ez neuken
erakusketa horren barri-
rik. Hamengo gauzen barri-
rik ez dauket, baiñe iguel
erakusketie ikustera juen-
go nitzake.



IDOIA ARANBURUZALA
Langabie

Ez dot erakusketie ikusi
eta ez dot horren gaineko
ezer be leidu. Ez nekixen
holakorik euenik be. Ira-
ganien egitten zien lanen
barri eukittie inportantie
da, geuk be ikesteko.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK LOTU BEHARREKO ATEAK Irakurle batek jakinarazi
digunez, ibarreko hainbat eskolaren alboan dauden ate asko ez dau-
de lurrari lotuta, eta arriskutsuak izan daitezke. Irakurle horren esa-
netan, orain dela hamar urte, Oñatin halako ate bat lurrera jausi eta
neskatila bat harrapatu zuen, hil egin zen. Ate horien arduradunei
horiek lot ditzaten eskatu gura die herritar horrek.

ASTEKODATUA

42

LAGUN FUSILATU ZITUZTEN ESPAINIAKO GERRAN

Espainiako gerran fusilatutako-
en alde Arrasaten sortu den
batzordeak jakinarazi duenez,
ibarrean 95 lagun baino gehiago
fusilatu zituzten gerra garaian.
Horien artean, 42 arrasatear.

BESTEKEESANA

“Euskaldunen pelotoia,
munduko biztanle
guztien arteko
saikapenean, %0,01
izatera ozta-ozta

helduko litzateke. Eta beste
bizidunekin harremanak eduki ahal
izateko, derrigorrezkoa zaigu
hizkuntza desberdinetara jotzea.
Ahozko hartu emanetan mekanika
zein den garbi dago, eguneroko
praktikan mintzaira bat baino
gehiago erabiltzen baititugu
euskaldunok, batere arazorik gabe
(...). Euskara idatzari dagokionez,
esparru berdina irabaztearren ez
ezik baita euskal sortzaileek euren
buruak, hiztun ugari sortzaile-
nak bezain baloratuta ikus ditzaten,
itzulpena dugu ezinbesteko plata-
forma. Eta uste horri eman nahi
izan genion aukera
Euskonews&Media-n”.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
‘EUSKONNEWS&MEDIA’/03-01-17

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



*Alternatibo ez
diren “beste
foroak”*

Mundu mailako kezka
nagusietariko
batzuk bideratzen
dituen Porto Alegre-
ko Foro erraldoiaren aurrean,
alternatibo ez diren beste
munduko foroak daude.

Foro horietan, enpresa
multinazionalak, estatu

boteretsuenek eta
nazioarteko erakun-
deek erabateko
sinbiosia egiten
dute. Porto Alegre-
ko foroak erabakiak
hartzeko gaitasuna
ez duen bitartean,
foro ez alternatibo
horiek munduko
ekonomiaren eta
gizartearen norabi-
deak planteatzen dituzte.
Gizabanakoen kontroletik at
eta “demokraziarekin” ezer
ikusirik ez duten eztabaida
gune horietan, gizabanakoei
dagozkien arazo estrategiko
garrantzitsuenen gainean
erabakitzen da.

Lehen, Davosen egiten
duten Foru Ekonomiko Mun-
diala. Munduko politikari,
enpresari, militar, eta azken
batean, munduko errekurtsuak
kontrolatzen dituztenak biltzen

dira, “neoliberalismo ekonomi-
koaren aldeko ideologia eta
politikak sendotzeko”.

Bigarrena, Bidelberg
taldea. 50eko hamarkadako
erdialdean, Holandako hotel
batean sortutako taldean,
Europako eta AEBetako
politikari, estrategia militar,

**“Beste batzar
horiek planeta
osoko gai
ekonomiko, sozial
eta politikoen
tratamendua
erabakiko dute”**

komunikabide eta
enpresariak biltzen
dira. Taldeak 120
kide ditu. Horietako
batzuk, British
American Tobacco,
Ford, British
Petroleum eta ERT.

Hirugarrena,
Batzorde Trilatera-
la. Bidelberg taldeko
kide batzuk sortuta-
koa, AEB, Europa eta Japonia-
ko kideek osatzen dute. Denbo-
ra luzean, batzordeko lehenda-
karia Rockefeller ezaguna izan
zen, eta Fiat-eko Giovanni
Agnelli ere paper garrantzi-
tsua du.

Batzar horiek, G-8-k eta
FMI-k planeta osoko gai
ekonomiko, monetario, sozial
eta politikoei eman beharreko
tratamendua erabakiko dute.
Eta guk, oraindik, demokra-
zian bizi garela sinesten dugu.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

KIROLA /10

KULTURA /14

Webgune berria du Udalak

Arrasateko
Udalak webgune
berria abiarazi
du. Eibarko
Code&Syntax
enpresak egin du.

Arrasateko atletak, bikain

Jonathan Pérez
eta Markel Blanco
atleta mondragoe-
tarrek markak
hausten jarraitzen
dute.

Umeendako antzerkia

Granadako Lasal
antzerki taldeak
umeendako
Zapatak antzezla-
na egingo du
Amaian.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Añe Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioiko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 31
Corcuera, Aranbarri 1. 943 79 22 26

ZAPATUA, 1
Irizar, Erguin 11. 943 79 12 39

DOMEKA, 2
Amezua, Santa Marina 32. 943 79 09 74

ASTELEHENA, 3
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30

MARTITZENA, 4
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09

EGUAZTENA, 5
Español, Araba etorb. 943 79 18 65

EGUENA, 6
Azkoaga, Ferrerías 5. 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguatorialdea. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

LARRIALDIK
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelenehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

Arrasate
Astelenehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

ERTZAINZAK
Arrasate. 943 79 71 99

SUHILTZAILAK
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRIAK
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXAK
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

MONTEKON LIBURUTEGIA
Monte. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jai egun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

SANTA AGEDA BEZPERA
Otsailaren 4an, martitzenean, Santa Ageda bezpera ospatuko dute. Herritarrek kantuan irtengo dira.

BARANDALLAREN ALDE
Gaur, egubakoitza, gose greba hasiko dute, 20:30ean, Etxerat-ek deituta. Bihar, 10:30ean, ekitaldiak biribiluneetan; 18:00etan, prentsaurrekoa; gero, berbaldia eta giza katea; 00:00etan, ur poteoa. Domekan, 19:00etan, eskualdeko manifestazioa.

AHT-REN AURKAKO AUTOBUSA
AHT Gelditu! Elkarlanak bihar, zapatua, Tolosan egingo den manifestaziorako autobusa antolatu du. Garibaitik irtengo da, 18:30ean, eta sei euro kostatuko da. Izena eman Jai-Zalen, Bionan, Ekaitzen edo autobusean bertan.

BEDOÑABEREN INAUGURAZIOA
Otsailaren 7an, San Andresko Bedoñabe eraikina inauguratuko dute. 11:30ean, ekitaldia izango dute eta 16:30ean, eskolako ateak zabalduko dituzte eta lantegiak izango dira.

IKASLE OHIEN BAZKARIA
Otsailaren 8an, Institutuko ikasle ohiek bazkaria egingo dute Uarkapen. 22 euro kostatuko da. Izena eman lehenbailehen.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
Arrasate Lehiaketetan lanak aurkezteko epea otsailaren 7ra arte dago zabalik. AEDk Pablo Urangan duen egoitzara eraman behar dira lanak.

SENDABELARREN GAINEN
Sendabelarren gaineko taldea eratu dute. Interesa duen edonork AEDra jo dezala.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Irazolak ezin izan zion Belokiri irabazi

Arrasaten lan egiten zuen Juan Luis Irazola taxilari atxondarrak ezin izan zion Belokiri irabazi buruz buruko bigarren mailako Pilota Txapelketaren finalean. Irazolak ez zuen gaizki jokatu -hamar tanto egin zituen-, baina argi geratu zen Belokiri irabazteko asko behar dela.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Eraxi"



- Esnea jeitsi behiak errapera.
— *Beixak, jaste illia ezezauna dalako ero, batzutan esnia jaso eitten dau ta ezin izaten da ezer eñ aiketa berriz eraxi arte.*
- Jetzi, eraitsi, bildu.
— *Aittak beixak erasten diardu.*

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



'Capoeira' zer den azaltzen

Eider Gutiérrez arrasatearrak Capoeira zer den azaldu digu, Arrasaten ikastaroa antolatu dutelako. Capoeira Brasilen jaio zen, eta dantza eta borroka nahasten ditu. Taldean egiten da, musikaren laguntzarekin. Irakaslearekin, Bornayrekin, etorri zen Eider azalpen guztiak ematera. Elkarriketa zapatuan eta domekan entzuteko aukera izango duzue. Eusebio Iñarrarekin San Baleixoren gainean izandako solasaldia ere izango duzue asteburuan.



Espainiako gerran hildakoak gogoratuz

36ko gerran fusilatu zituzten edo ordutik hona desagertuta dauden debagoiendarren memoria berreskuratu eta, bide batez, zer egin zieten ikeritzeko, ibarreko udalek eta hildakoen familiarrekin batzordea eratu dute. Gaur, egubakoitza, egingo dute lehen batzorra, eta astelehenean, zer erabaki zuten kontatuko digute batzordeko kide batzuek. Erakusketa antolatzea, oroi-garria ipintzea eta omenaldia egitea dira asmoetako batzuk.

HAUGIROA!

MINIMOA 0 °C
Zapatua, 25

MAXIMOA 12 °C
Eguena, 23

ASTEKO EURIA (l/m²) 70,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 22	12 °C	3 °C	16,8 l/m²
Eguena, 23	12 °C	6 °C	2,9 l/m²
Egubakoitza, 24	11 °C	3 °C	- l/m²
Zapatua, 25	12 °C	0 °C	3,2 l/m²
Domeka, 26	12 °C	1 °C	14,1 l/m²
Astelehena, 27	12 °C	9 °C	2,3 l/m²
Martitzena, 28	11 °C	10 °C	31,1 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorian agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

ASTELEHENA
20:00 MIR: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.

MARTITZENA
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.

EGUBAKOITZA
19:00 Planing Prest: Deiane Arrieta

ZAPATUA
11:00 Asteko elkarrizketak: Eusebio Iñarrarekin San Baleixo, eta Capoeira dantzaren berri Eider Gutierrezekin.

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Osoko bilkura izan zen atzo, eguena

Urtarrilari dagokion osoko bilkura egin zuen atzo, eguena, udalbatzarrak. Zinegotziek 14 gai zituzten aztertzeko. Tartean, lau mozio. Horietako bat herri sahararra jasaten ari den egoeraren gainekoa izan zen. Ezker Batuak, berriz, beste bi aurkeztu zituen: Iraken kontrako erasoaren gainekoa eta *Prestige* itsasontziak eragindako istripuaren gainekoa. Bukatzeko, AHT Gelditu! Elkarlanak Abiadura Handiko Trenaren kontrako mozio bat aurkeztu zuen.

Edozelan ere, albiste hau idaztean batzarra egin barik zegoenez, datorren astean emango dugu gertatutakoaren berri.

Bidali dute Garzónnek eskatutakoa

Astlehenean, hilaren 27an, bidali zuen Arrasateko Udalak Garzón epaileak eskatutako agiriak. Ertzain bat joan zen informazioaren bila, agente judizial gisa. Oro har, epailearen agindua interpretatu eta gero, egoki ikusi dituzten agiriak bidali dizkiote Auzitegi Nazionalako epaitegiari. Bitxikeria moduan, esan beharra dago gutunazal baten kabitu zaiola Arrasateko Udalarik Garzón epaileari bidalita dokumentazioa.

Aragoarrak Arrasaten

Aragoiko Gazte Institututuko zuzendariak, Zaragozako Unibertsitateko ikasle eta irakasleak eta hango zenbait ordezkari politiko Arrasaten izan ziren eguaztenean, bisitan. Hemengo kooperatiba eredia ikustea zen aragoarren helburua. Haien esanetan, Arrasate erreferentzia garrantzitsua da euren dako, eta 40 urte daramatzate holako bisitak egiten. MCCko egoitzan izan ziren lehenengo, unibertsitatera joan ziren gero, eta, horrez gain, Irizar enpresa bisitatzera joateko asmoa ere bazutela esan zuten.



Kataideko txakolina aurkeztu dute

Angiozarko Parteitti auzoan giro bikaina izan zuten domeka eguerdian; izan ere, han aurkeztu zuten Kataideko aurtengo txakolina. Denetarik izan zuten aurkezpen ekitaldian: lehenengo, meza; gero, txakolina eta pintxoak; eta, bukatzeko, dantzaldia, trikitilariak lagunduta.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Iragana eta oraina ahaztu

Aste honetan, Arrasaten, 1936-39ko gerran fusilatutako debagoien-darren aldeko batzordea eratu dute. Ibarreko udal ordezkariak gain, fusilatutako senideek eta hainbat boluntariok osatu dute batzorde hori. Eta batzordeko ateak zabalik dituzte, noski. Talde horren asmoa fusilatutako oroimena eta izen ona berreskuratzea da,

eta helburu hori lortzeko hainbat ekimen abiarazi gura dituzte.

1936-39ko gerra eta haren ondorioak Espainiako Estatuko eta Euskal Herriko pasarte oso iluna osatzen dute. Horregatik, aspaldian, hainbat taldek sasoi hartan gertatutakoaren gaineko salaketa-ekimenak bultzatzea oso positiboa da. Beste batzuek egiten ez dutenez...

Bestalde, eta gaur egunera etorrita, Arrasaten antolatu berri duten baraualdia gogora etorri zait. Hainbat lagunek Bautista Barandalla preso nafarraren alde asteburua baraurik egingo dute Arrasateko Udaletxean. Bautista Barandalla oso gaixo dago eta Espainiako Zigor Kodearen 92. artikuluan arabera, kalean egon beharko luke, aspaldi.

Batzuek iragana ahazteko gaitasuna dute, baita eurek egindako legeak ere.

ASTEKOIRUDIA

ión Ver Ir Favoritos Herramientas Ventana Ayuda 16:21

Arrasate-Mondragón - Sarrera

Defensor Actualizar Página principal Autorrelleno Imprimir Correo

//www.arrasate-mondragon.org/

libistek http://www.bopv G-Elhuyar G-Euskalterm G-Hitzegia 3000 G-Banasta G-Zuzentzailea G-Sailkatuak Google (eus)

www.arrasate-mondragon.org castellano Web maps

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Herria | Udala | Albisteak | Equegia | e-posta

ARRASATE Hemen zaude: Sarrera

ALBISTEAK

Gerra zibileko fusilatuek omenaldia jasoko dute [+]
(2003-01-27 / 15:10)

Udal garrario zerbitzua erabiltzeko laquntzak; eskaerak egiteko epea zabaldu da [+]
(2003-01-24 / 18:30)

Joseba Belokik Udala Kirol Medikuntza Zerbitzuan egin du urteroko azterketa [+]
(2003-01-23 / 16:23)

GEROAGO ETA BIDAIARI GEHIAGOK DARABIL UDAL AUTOBUSA

2000 urteko irailean martxan ipini zen Udala autobus zerbitzua; gero eta pertsona gehiago darama. 2002. urtean 191.990 bidaiari mugitu ditu autobusak.

Albistearen agurra Saludo del Alcalde

2002ko L.E.P. O.P.E. 2002

.net

2003 - Urtarrila

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

2003 Urt Ekin!

ARRASATEKO UDALAREN WEBGUNEAN AURKEZTU ZUTEN JOAN DEN EGUBAKOITZEAN (HILAK 24)

Arrasateren gainean zerbaite jakin gura duenak webgune berria bisita dezake hemendik aurrera. *Arrasate-mondragon.org* da webgunearen helbidea, eta Eibarko Code&Syntax enpresak egin du. Eta, dituen berritasunen artean, azpimarratzekoa da webgunearen informazioa etengabe eguneratuko

dutela. Behintzat, hori da Arrasateko Udalaren asmoa. Arrasateren gaineko informazio orokorra eta Udalaren gaineko informazioa irakur daiteke webgunean; eta herritarren partaidetzarako lekua ere gorde dute. Adibidez, Arrasateko albisteak irakurtzeko aukera ematen du. / UBANE MADERA.

BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

FUTBOLA/ Arrasate Txuriurdirin taldea aurkeztu zuten astelehenean Monte tabernan

“Taldearen asmoa da datorren denboraldian Realarekin Europara joatea”

XABIER URZELAI

Realak dagoeneko jarraitzaile talde bi ditu Arrasaten. Astelehenean aurkeztu zuten, Monte tabernan, Arrasate Txuriurdirin taldea, eta, Realzale asko elkartzeaz gain, Realeko hainbat jokalar, presidentea bera eta zuzendaritzako hainbat kide ere izan ziren.

Realeko jarraitzaile izatea oso erraza da orain. Talde txuri-urdirin sekulako denboraldia egiten dabil, *neguko txapeldun* da, eta oraindik ez du partidurik galdu. Hala ere, Arrasate Txuriurdirin jarraitzaile taldeak meritu bikoi-tza du: batetik, taldea sortzea lortu dutelako, eta bestetik, taldea joan den denboraldian sortzea erabaki zutelako.

Realak bigarren maila oso gertu zuenean, Arrasateko Realeko jarraitzaile koadrila bat taldea sortzeko lanean hasi zen. Arantza Oruna Arrasate Txuriurdirin taldeko presidenteari bururatu zitzaion taldea sortzea: “Reala ez zebilen batere ondo. Atzeko postuetan zebilen, eta gu ere animuz ez genbiltzan oso ondo. Giro txar hura apur bat susper-tzeko asmoz, jarraitzaile talde bat sortzea pentsatu genuen. Sekula ez genuen uste izango urtebete geroago lehenengo postuan egongo ginenik”.

Gaur egun, jarraitzaile talde bat sortzeko baimen asko behar dira. Gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira, eta horietako baldintza bat da taldea gutxienez hogeit bat lagunek osatzea. Hasiera baten, hogeita bost lagunek eman zuten izena, eta tramitazio guztiekin hasi ziren, joan den urteko apirillean. 2002ko abendurako taldea formalki eratuta zegoen, baimen guztiekin. Hala ere, aurkezpen ofiziala atzeratzea erabaki zuten, jokalarien *agendak* bete-beteta egoten dira-eta.

JENDE ASKO AURKEZPENEAN

Astelehenean, giro polita egon zen Monte tabernan. Jende asko hurreratu zen Realeko jarraitzaile taldearen aurkezpenera, eta Realeko jokalariek lan handia izan zuten: ume eta nagusiekin argazkiak, sinadurak... Aitor Lopez Rekarte, Agustin Arantzabal eta Javier De Pedro izan ziren Arrasaten. Horiekin batera Realeko presidentea ere izan zen, Jose Luis Astiazaran. Jokalariak, Aitor, batez ere, pozik zeuden Arrasateko beste jarraitzaile talde bat duelako. Herrian geroago eta jarraitzaile gehiago daude, eta Aitorren esanetan, hori asko eskertzen da: “Oso pozik nago herrian Realak jarraitzaile talde bi dituelako. Arrasate Txuriurdirin taldeari asko kostatu zaio baimen guztiak eskuratzea, bai-



Realeko jokalariek lan handia izan zuten argazkiak atera eta sinadurak egiten.

“Arrasate Txuriurdirin taldea sortzea joan den urtean bururatu zitzaigun”

na beste talde batzuekin gauza bera gertatzen da. Herrian jarraitzaile asko daude, eta nik asko eskertzen dut hori”. Realeko pre-

“Kanpora joaten garenean, taldea animatzeaz gain, gastronomiaz ere gozatuko dugu”

sidenteak ere esker oneko hitzak izan zituen: “Realak lotura handia du Arrasatekin. Donostiatik urrun egonda ere, Arrasaten

“Arrasate Txuriurdirin taldeko atepak irekita daude: baldintza bakarra, Realzalea izatea”

jarraitzaile asko daude, eta Astore ere hemengoa da. Ohore handia da gaur Arrasate Txuriurdirin taldearen aurkezpenean egotea”.

Logotipo esanguratsua

Arrasate Txuriurdirin taldearen aurkezpenean, taldeak izango duen logotipoa ere aurkeztu zuten. Jende asko animatu da, musu-truk, taldearendako logotipoa egitera. Edozelan ere, azkenean, Iñigo Arregi margolari arrasatearrari eskatu zioten taldea irudikatuko zuen logotipoa egiteko. Iñigo logotipoarekin lanean hasi zen, eta semeak, Beñat Arregik, saiakeraren bat edo beste egitea erabaki zuen. Bada, gazte mondragoetarrak Europako jarraitzaile taldeen logotipoak aztertu zituen, eta frogak egiten hasi zen. Lortutako emaitza oso ona izan da, Arrasatekin esangura handia duen logotipoa egin du-eta; indar handikoa eta berehala ezagutzen den horietakoa. Monte tabernakoek logotipoa ikusi zutenean ez zuten duda izpirik izan, eta Beñat Arregiren logotipoa aukeratu zuten.

Asteleheneko ekitaldian, azken

unera arte Arrasate Txuriurdirin taldearen logotipoa gordeta egon zen. Horman zintzilik zegoen, baina Realeko zapi batek estaltzen zuen, eta taldea ofizialki aurkeztearekin batera erakutsi zuten, jendearen txalo artean. Segidan, Beñat Arregik logotipoaren nondik norakoak azaldu zizkien Montan batu zirenei.

Luncha izan zuten, eta luncharen ondoren, Arrasate Txuriurdirin taldeko jarraitzaileak Realeko jokalariekin eta presidenteari batera afaltzera joan ziren. Arantza Orunak taldearen aurkezpenean esan bezala, Arrasateko jarraitzaileen helburua Real animatzea izango da. Horrekin batera, kanpora egingo duten bidaietan, gainerako herrietako gastronomiaz gozatuko dute.

Argi dago Arrasate Txuriurdirin taldearen bidaietan, futbola gertutik bizi izateaz gain, umore ona eta giro hobea izango dela.

Arrasate Txuriurdirin taldeko sortzaileak oso pozik daude taldeak herrian izan duen harrerarekin: “Ez genuen uste horrenbeste jende animatuko zenik”. Egun, jarraitzaile taldeak 115 bazkide ditu, baina taldeko atepak irekita daude; hori bai, baldintza bat bete behar da: Realzalea izatea. Arrasateko jarraitzaile taldeak helburu asko ditu, baina Arantza Orunaren esanetan, helburu nagusietako bat datorren denboraldian Realarekin batera Europara joatea da: “Seguru gaurde Europara joango garela, baina oraindik ez dakigu nora, Italiara, Ingalaterrara...”

Edozelan ere, horiek datorren denboraldiko kontuak dira, baina lehenago ere hainbat irteera egingo dituzte. Hain zuzen ere, lehenengo irteera oraingo asteburuan izango da, Arrasateko taldea San Mamesen izango da-eta derbian. Euskal Herriatik Kanpora egingo duten lehenengo irteera ordea, Valladolidera izango da martxoaren 2an. Taldeak bidean hamarretakoa egiteko aukera izango du, Cigalesen dagoen Protos upategiak gonbidatuta: “Valladolidera jende asko joaten bada Santanderrera ere joango gara”. Horrez gain, Arrasateko jarraitzaileek Nou Camp-era ere joan gura dute. Bartzelona ez dabil ondo, baina hantxe jokatzeko da berezia, zelai ikusgarria da-eta. Oraingoan, horiek ditu helburu jarraitzaile taldeak. Horrez gain, Arrasate Txuriurdirin taldeak Antzetan ez du kalerik egingo.

INFORMATIKA/ Arrasateko Udalak webgunea aurkeztu du

Webgunea abiarazi du Arrasateko Udalak

UBANE MADERA

Arrasateko Udalak webgunea abiarazi du. Pare bat aste dira erabilgarri dagoela, baina joan den egubakoitzean (hilak 24) aurkeztu zuten. Helbidea arrasate-mondragon.org da eta Eibarko Code&Syntax enpresak egin du.

Orain dela sei-zazpi urteko webgunea goitik behera aldatu, eta webgune berritua aurkeztu du Arrasateko Udalak. Internetek ematen dituen aukera berritzaileak aprobetxatuta egin dute.

Code&Syntax enpresa eibarrak egin du. Enpresako teknologi arduradun Garikoitz Aralazak esan zuenez, gune horren berritasunik garrantzitsua da Udalak berak duela edukia publikatzeko aukera. Hau da, etengabe berrituko dute webgunea, eta albisteak, Gobernu batzordearen diktamenak, kultura agenda... egun batetik bestera eguneratzeko aukera dute. Hain zuzen, Udaleko Pertsonal buru Jose Mari Erañak esan zuenez, hori da webgunearen erronketako bat: informazioa eguneratuta izatea. Gainera, informatikarik ez dakien edozeinek ere publikatu dezake informazioa Internetarako nabigatzaile huts batekin.

Webgunearen beste ezaugarrietako bat hizkuntza da. Izan ere,



UBANE MADERA

Arrasateko Udaleko zein Code&Syntax enpresako ordezkariak prentsa aurrekoan.

webgune elebiduna egin du Arrasateko Udalak; hortaz, artikulua euskaraz eta espainolez irakurri ahal dira. Era berean, bilaketak ere euskarari egokituta daude.

EDUKIAK

Bestalde, edukiei dagokien, denetik irakur daiteke: herriko informazioa (argazkiak, herriko zerbitzuak, parkeak, herriko plana...); Udalaren informazioa (korporazio beraren gainekoa, udal zerbitzuen gida, lanerako deialdiak...); eta herritarren par-

taidetzarako lekua ere gorde dute: kontsultetarako, kexetarako, inkestetarako...

HOBETZEKOTAN

Azkenik, aurrera begira webgunea hobetzeko asmoa dutela jakinarazi zuten. Helburua da lortzea herritarrek etxetik egitea orain arte udaletxean egin behar izaten diren kontuak.

Bien bitartean, hortxe dago Arrasateko Udalaren webgunea, edozeinendako gertu. Hona helbidea: arrasate-mondragon.org.

ZERBITZUAK/ Herri autobusaren txartelaren garestitzea

Otsailean urbanoaren txartela garestituko dute

Urtero ohi denez, urte hasieran garestitu egingo dute Arrasateko autobus urbanoaren txartelaren prezioa. Aurtengo igoerarekin, txartel arrunta hiru zentimo garestiago izango da; hortaz, 0,68 euro kostatuko da. Bonobus

txartela, berriz, bi zentimo garestituko dute; horrela, 0,51 euro kostatuko da bakoitza. Horrek esan gura du prezio berriekin hamar bidaiako bonoak 5,10 euro balioko duela. Bestelakoetan moduan, herri autobusaren txar-


telaren igoera urteko Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) arabera egin dute.

EPE LABURERAKO HELBURUAK

Leintz Garraioak enpresako kudeatzaile Angel Marcok adierazi digunez, enpresaren nahia zen bi eta hiru zentimoko igoera hori Arrasateko Udalak ordaintzea, eta ez urbanoa erabiltzen dutenek. Baina Arrasateko Udalak gastu asko ditu aurreikusita aurtengo legealdirako; horren ondorioz, "eta nahiz eta gaiarekiko interesa erakutsi", ezin du igoera bere gain hartu.

IGOERA, OTSAILEAN

Otsailaren lehen sartuko dira indarrean prezio berriak. Zera adierazi digu Angel Marcok: "Enpresaren interesak baino gehiago, bidaiarien euren interesak kontuan hartu ditugu eta otsailaren lehenengora arte atzeratu dugu prezioak igotzea".



ARRASATE PRESS

Txartel arrunta 0,68 euro kostatuko da eta bonobusa, 5,10 euro.

LABUR

Bautista Barandalla aske uztearen aldeko baraualdia egingo dute Arrasaten

Gaur, egubakoitza, baraualdia hasi dute ibarreko zenbait lagunek udaletxean, eta asteburu osoa egongo dira. Leintz bailarako Etxerat elkarteak kideak deitu dute ekimena, Bautista Barandalla preso nafarraren alde. Izan ere, Bautista Barandallak heste lodiari eragiten gaixotasun sendaezina dauka. 20:30ean, hasiko da gose greba. Eta zapatuan, goizean hasi eta gauera arte ekitaldiak egingo dituzte. Berriz, domekan, 19:00etan, eskualdeko manifestazioa egongo da.

Etxeratak exijitzen du Barandallari Espainiako zigor kodearen 92. artikulua ezar diezaiotela. Horren arabera, gaixotasun larriak dituzten presoak kartzelatik atera behar dituzte.

Gaur bukatu da Saharako errefuxiatuendako janaria batzeko kanpaina

Gaur bukatu da Udalak abiarazitako Saharako errefuxiatuen aldeko kanpaina. Haiendako janaria batzea izan da kanpaina horren helburua; galtzen ez diren jakiak, hain zuzen ere. Eta, besteak beste, Eroskin, Super BMn, udaletxean eta herriko ikastetxeetan ibili dira bilketa egiten. Horrez gain, jaki horiek Sahararaino eraman ahal izateko dirulaguntza ere eman daiteke. Kontu-korronte bi ireki dituzte horretarako: Euskadiko Kutxan (3035 0060 45 060004746.9) eta Kutxan (2101 0200 44 0011305190).

Astelehenean (hilak 27) aldatu zuten TVE1en emisiorako frekuentzia

Iragarri ziguten moduan, aldatu dute TVEren lehenengo katearen emisiorako frekuentzia. Joan den astelehenean aldatu zuten, hain zuzen. Harrezkero, 43. kanaletik emititu beharrean 8. kanaletik emititzen dute seinalea. Hortaz, etxeko telebista kanal horretara egokitu beharra dago. Kasu askotan, norberak egin dezake egokitzapena, baina, lortu ezean, antena teknikariari deitu behar zaio. Telebistako seinalea Muruko errepikagailutik hartzen duten herritarren gain du eragina aldaketa horrek.



Talde ugari batu ziren AHTren kontra

Ibarreko elkarte ugari batu ziren egubakoitzean (hilak 24) Herriko Plazan. AHTren kontrako ekitaldia egitea zen helburua; edozelan ere, hotz handia egiten zuela eta, ekitaldia dezente laburu behar izan zuten. Kontuak kontu, taldeek Abiadura Handiko Trenaren gainean duten iritzia azaldu zuten. Hantxe izan ziren Arrasateko eta Eskoriatzako udaletako ordezkariak, Aralarko Martin Elexpuru, LAB, Denontzat, Zutik, ESK, Ekologistak Martxan, Biolur eta Komite Internazionalistak taldeetako ordezkariak, eskalatzaileak, baserritarrak eta Angiozarko alkatea.

ZERBITZUAK/ Zirkulazio araudia

Zirkulazio araudi berria, indarrean, domeka ezkerro

UBANE MADERA

Zirkulazio araudi berria indarrean dago Arrasaten joan den domeka ezkerro. Horren arabera, arau-hausteren bat eginez gero, isunak 36 eurotik hasi eta 1.502 eurorainokoak izan daitezke. Alde zaharren gainean, berriz, araudi horrek dio oinezkoen gune izaten segitzen duela.

Herri barruko zirkulazioa erregulatzen du zirkulazio araudiak. Horrela, bada, besteak beste, arauak bete ezean ipini beharreko isunak ere zehazten ditu.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke. Eta, jakina, isunaren zenbatekoa larritasunaren arabera ezarriko dute: arau-hauste arinak 36 euroko isunarekin zigortu ahal izango dituzte; arau-hauste larriak, 92 eurorainoko isunarekin eta gidatzeko baimena aldi batez kentzeko arriskuarekin, hiru hilabetera arte; eta arau-hauste oso larriak, 302 euroko isunarekin eta gidatzeko baimena aldi batez kentzeko arriskuarekin, sei hilabetera arte. Horrez gain, 92 euro eta 1.502 euro arteko isunak jar ditzakete arau-hauste jakinak eginez gero: baimen barik gidatzea, matrikula barik gidatzea, baldintza teknikoak betetzen ez dituen ibilgailu batekin ibiltzea...

ARAU-HAUSTE ARINAK

Arau-hauste arinak izango dira, adibidez: zirkulazioa oztopatzen dela gelditzea edo aparkatzea; zamalanak egiteko erreserbatutako lekuan geratzea edo aparkatzea; eta motozikleten edo ziklo-



AITOR URIZAR

Zirkulazio araudiaren arabera, debekatuta dago espaloian aparkatzea.

motoreen gidariek ez erabiltzea homologatutako kaskorik.

ARAU-HAUSTE LARRIAK

Arau-hauste larriak izango dira: ez errespetatzea oinezkoen pasabideen lehentasuna, behar bezala seinaleztatuta dauden lekuetan; oinezkoen pasabideetan geratzea edo aparkatzea; garraio publikorako (taxia, autobusa...) lekuetan geratzea edo aparkatzea; axolagabekeriak gidatzea; edo debeku seinale bati kasurik ez egitea.


ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK

Eta arau-hauste oso larriak izango dira, besteak beste: baimendutako gehieneko abiadura %50 gainditzea; abiadura lasterketa egitea

ibilgailuen artean; udaltzainen seinaleei kasurik ez egitea; arauak ezartzen duen odoleko alkohol tasa gainditzea, edo ausarkeriaz gidatzea.

ALDE ZAHARRA

Bestalde, Arrasateko alde zaharra oinezkoendako gune moduan araututa segituko duela dio zirkulazio araudiak. Horrela, mugatuta dago ibilgailuen sartu-irtena: zamalaren orduetatik kanpo (07:00etatik 13:00etara) itxita egongo dira beti alde zaharrerako sarrera-irteerak, larrialdietan izan ezik. Hori bai, oinezkoen gunean bizi direnek asteen behin (martitzenetan, seguru asko) zamalanak egin ahal izango dituzte, 18:00etatik 21:00etara.



UBANE MADERA

Prentsaurrekoa eman zuten, Melina Lópezen proiektuaren berri emateko.

Melina López eskulturagileak eskuratu du Udalaren beka

UBANE MADERA

Udaleko Emakume Sailak ateratako beka Melina López eskulturagile arrasatearrak eskuratu du. Eskultura bat egingo du Melinak. Apirilera bukatuko du eta, gutxi gorabehera, 300 kilo izango ditu.

Langile guztiei eta lan indarrari omenaldia egin gura die Melina Lópezek eskulturaren bitartez. Baina, era berean, emakumezkoek jasaten duten bazterkeria ere salatu gura du. Horretarako, industriarekin lotu du egingo duen lana, haren esanetan, "Debagoieneko ezaugarri nagusietako bat industria delako". Gaineratu zuen lehengo fabrikek ingurunea eta pertso-

nen bizimodua aldatu egin zutela. Horrela, UCEMeko torlojugintzako fabrika zaharra hartu du eskulturarako oinarri moduan. Melina Lópezek esan zuenez, 1926an ireki zuten fabrika hori, eta 2000ra arte, gizonzkoek bakarrik egin zuten lan. Gero, 2000-2001ean, emakumezkoak ere ibili ziren. Baina gaur egun, berriro ere gizonzkoak bakarrik dabilta torlojugintza fabrikari. Eskulturagile gaztearen esanetan, "horrek erakusten du emakumeen eta gizonzkoen artean oraindik ez dagoela berdintasunik". Horrela, bada, hori guztia islatuko du Melinak eskulturari. 2,5 metro garai izango da, 3 metro zabal, eta, gutxi gorabehera, 300 kilo izango ditu. Emakumeen Txokoan ipintzeko asmoa dute.



Fusilatuen izen ona berreskuratzeko

Espainiako gerran fusilatu zituzten debagoiendarren aldeko batzordea sortu dute Arrasaten. Ibarreko udaletako ordezkariak eta zenbait boluntariok osatzen dute taldea, baina parte hartu gura duen edonorendako dago zabalik. Oro har, batzordearen asmoa da fusilatutako oroimena eta izen ona berreskuratzea; horretarako, besteak beste, adierazpen instituzionala, omenaldia, erakusketa eta oroigarria egingo dituzte. Horrez gain, fusilatutako gehieneko informazioa dutenei udaletxeetara jotzeko eskatzen die batzordeak.

Datuen arabera, ibarrean 95 lagun baino gehiago fusilatu zituzten; tartean, 42 arrasatear.

LABUR

2003ko gida komertziala laster banatuko dute arrasatearren etxeetan

Laster esku artean izango dugu gida komertziala. Gainera, berritasun ugari ekarriko ditu; hori dela eta, urtarrilean beharrean, otsailaren erdialdean banatuko dute. Berritasun horien artean, adibidez, nabarmentzekoa da aurreneko aldiz telefono partikularrak ekarriko dituela, gida osoa koloretan izango dela eta Interneten sartutako dutela informazio guztia; horrela, Internetetik bertatik kontsultatu ahal izango da gida. Denera, 12.000 ale banatuko dituzte, Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Aramaion.

Guraso eskolak antolatu dituzte 13 eta 18 urte bitarteko seme-alaben gurasoendako

Seme-alaben heziketan sortzen diren kezka eta zailtasunak argitzea eta bideratzeko, gurasoendako eskolak antolatu ditu berriro Arrasateko Udalak. Baina oraingoan, 13 eta 18 urte bitarteko seme-alaben gurasoendako eskolak dira. Parte hartu gura duenak otsailaren 7a baino lehen eman beharko du izena, udaletxean bertan. Asin josta, 25 laguneko taldeak osatuko dituzte. Eskolak eguaztenetan edo martitzenetan izango dira 13 eta 15 urteko seme-alaben gurasoendako eta astelehenetan edo martitzenetan gainerakoendako. Lan-tegi Eskolako geletan emango dituzte eskolak. Sei euroko matrikula ordaindu beharko da.



SAN BALEIXO JAIAK MEATZERREKAN

Egubakoitzetik domekara bitartean, jaietan murgilduta ibili ziren Meatzerreka auzoan. Ekitaldi asko egin zituzten asteburu osoan. Hala, domekan, meza entzun zuten Meatzerrekako auzotarrek auzoko zaindariaren

ermitan, Garagartzako abesbatzak lagunduta. Mezaren ostean, txistulariek eta dantzariak zenbait dantza egin zituzten; eta bukatzeko, ardoa eta pastak banatu zizkieten San Baleixo ermitara joan ziren guztiak.



BIZIKLETAZ MUNDUARI BIRA EMAN GURAN

Bizikleta hartu eta Turkiara joateko asmoarekin ekin zion bidaiari Eneko Etxebarrieta gasteiztarrak; baina gustura ibili zen, eta munduari bira ematea erabaki zuen. Bizikletaz, jakina. Enekok Europa osoa zeharkatu du, baita Asia eta Australia ere. Gero, itsasoa gurutzatu eta Hego Amerikan jarraitu zuen bidaia, Brasilerira iritsi zen arte. Miyuki ezagutu zuen han, eta orain, hona etorri dira biak. Baina laster Brasilerira joango dira berriro, munduari bira ematen bukatzeko.



EGIN BEZAGUN
BAKOITZAK GURE
AHALEGINTXOA



Zahar Berri
Pablo Uranga 4, behea
Tell.: 943 711 721
943 771 228
zaharberri@aedelkatea.com

Jonathan Pérezendako eta Markel Blancorendako, asteburu biribila

XABIER URZELAI

Arrasateko atleta bi horiek asteburu biribila izan zuten. Markel Blancok Donostiako 47. Nazioarteko Krosean lehenengo postua eskuratu zuen, infantil mailan. Jonathan Pérezek, bestalde, bere marka hobetu zuen pertikarekin; 4,90 metroko jauzia egin zuen Jonathan Pérezek.

Arrasateko atletismoa zorioneko dago. Arrasatear bi, Markel Blanco eta Jonathan Pérez, sekulako lana egiten dabilta, baita lan horren fruituak jasotzen ere. Arrasateko kirolari bi horiek punta-puntako maila erakusten dabilta, eta, seguru asko, etorkizunean kontuan hartzeko kirolariak izango dira.

MARKEL BLANCO, GELDIEZINA

Atleta gazte horren ibilbidea geldiezina da. Donostiako Nazioarteko Krosean, infantil mailako lasterkaria lehena izan zen. 3.200 metroetako lasterketan sekulako nagusitasuna erakutsi zuen. Lasterkariak kilometro bi egin zituztenerako, Markel Blanco lasterketa buruan zen. Gero, hamabost metroko aldea lortu zuen Markelek, eta alde horri lasterketa



Jonathan Pérez, Iturripen entrenatzen.


amaiera arte eutsi zion. Lehenengo aldia da Arrasate Atletiko Taldeko atleta batek nazioarteko proba horretan sari bat eskuratzen duena. Javier Mentxaka beterranoak ere lasterketa ona egin zuen; lasterketa nagusian hartu zuen parte, eta mondragoetarra 53.a izan zen.

JONATHANEK, BOST METROAK GERTU

Real Sociedad taldeko Jonathan Pérezek geroago eta gertuago du

helburua: bost metroko jauzia egitea, hain zuzen ere. Joan den astean, pista estaliko Klub Arteko Txapelketan Jonathanek pertikarekin 4,90 metroko jauzia egin zuen. Jauzi horrekin, arrasatearrak bere marka onena egin zuen. Arrasatearrak geroago eta gertuago ditu bost metroak. Aspaldian, Gipuzkoako inor ez da marka horretara iristeko gai izan, eta Estatuan 10 lagun baino ez daude maila horretan.

FOTOKIROLA



Enrique Kabiketak agur esan digu

Joan den asteburu beltza izan zen Arrasateko kirolarendako. Zapatuan, gaixo zegoen Arrasateko korrikalari Enrique Kabiketa hil egin zen, 51 urte zituela. Maratoilari mondragoetarra Euskadiko eta Espainiako txapelduna izan zen 1999an Bilbon korritu zuen maratoian. Arrasatearrak 2 ordu, 31 minutu eta 56 segundo behar izan zuen proba egiteko. Hala ere, Enrique Kabiketaren marka onena 2 ordu, 25 minutu eta 48 segundokoa zen. Arrasateko korrikalariak Aukea saria jaso zuen 1998an.

FOTOKIROLA



Mondrak 6-1 irabazi zuen, eta goiko postuak estutu egiten dira

Orain dela bi asteke zeingehiagoka lehenbailehen ahaztu, eta Mondrak bide onetik jarraitzen du, joan den zapatuan Idiazabali 6-1 irabazi eta gero. Mondrak golak egiten dituenean, ez da motz geratzen, eta zapatuan, beste behin, argi geratu zen hori. Lehenengo zatia 1-0 amaitu zen, Keixi-k penaltiz egindako gol bati esker. Idiazabal jokalaririk bat gutxiagorekin geratu zen, eta arrasatearrek ederto aprobetxatu zuten hori. Keixi-k (2), Jon Muruamendiarazek (2), Iker Lópezek eta Arkaitz Garmendiak egin zituzten golak. Horrez gain, Urolak 1-4 irabazi zion Zumaiakori, liderrari, eta, hala, goiko postuak estutu egin dira. Zumaiakok lidertzan jarraitzen du, 40 punturekin. Urolak 37 puntu ditu eta Mondrak, 36. Asteburuan, Pedrusko izango du aurkari.

PILOTA

Arrasateko pilotariek ezin hobeto hasi dute Udaberri Txapelketa

Egubakoitzean, Arrasateko pilotariek Udaberri Txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu zuten: gazte mailan, Agirrek eta Arroiabek 22-19 irabazi zieten Tolosako pilotariei. Oso partidu parekatua izan zen. Pilota azkarrarekin jokatu zuten, eta sake bitartez lortutako tantoek erabaki zuten lehia; senior mailan, Zugasti eta Lazkano 22-17 nagusitu ziren Zumarragako pilotarien kontra. Arrasatearrak hilabete egon dira jokatu barik, eta, irabazi egin zuten arren, asko igarri ei zuten atsedenaldi hori.

PILOTA TOPAKETAK

Martitzenean, Arrasateko ikastetxeetako ikasleek Pilota Topaketak izango dituzte

Aurten ere, Ikaspilotaren eskutik, ibarreko gaztetxoek Pilota Topaketak izango dituzte. Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleendako dira. Pilota Topaketen helburua, pilota bera sustatzeaz gain, ikasleen arteko harremanak indartzea da, eta, horrez gain, goiz pasa ederra egitea. Arrasaten Pilota Topaketak datorren martitzenean izango dira, otsailaren 4an. Uarkapeko, Iturripeko eta Musakolako pilotalekuan izango dira, goizeko bederatzita eta erdietan hasita.

IGERILEKUA

Datorren astean, Musakolako kiroldegiko igerileku klimatizatuak itxita egongo dira

Musakolako kiroldegiko igerileku klimatizatuak itxita egongo da otsailaren 3tik 9ra arte, urteroko garbiketa egin behar dute-eta. Medikuen gomendioz igerilekua erabili behar dutenek Aretxabaletako igerilekua erabiltzeko aukera izango dute.

Hala ere, igerileku klimatizatuak itxi egingo duten arren, sauna eta lurrin bainua ohiko ordutegian irekita egongo dira. Informazio zabalagoa gura duenak 943 77 16 77 telefonora dei dezake.

ARRASATEKIROLPROIEKTUA



ARRASATE KIROL PROIEKTUA

AKPK antolatzen dituen ekintza berezien artean arrakastatsuenak mendi irteerak dira.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA

Arrasate Kirol Proiektua, 676 neska-mutikorekin lanean

Neska-mutiko horiek Arrasateko eta Aramaioko ikastetxeetako ikasleak dira

XABIER URZELAI / AKP

Neska-mutiko horiek guztiak 6 eta 14 urte bitartekoak dira, eta kopuru hori Arrasateko eta Aramaioko ikastetxeetan dabilten ikasleen %50 da. Eskola kiroleko ekintzak lau etapatan banatzen dira, eta partaidetza etapa bakoitzaren araberakoa da.

Lehenengo etapa 6 eta 8 urte arteko ikasleei dagokie eta kirol jolasetan dago oinarrituta. AKPko ikaslerik gazteenak dira, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailakoak; baina partaidetza kontuan izanik, esan daiteke zaletasun handien dutenak direla. Gaztetxo horiek astean bitan izaten dira gurekin. Ordubeteko saioak egiten dituzte, eta saio horietan, monitoreek prestatutako ariketa-jolasekin ondo baino hobeto pasatzen dute.

Bigarren etapan, aurrekirolean, 8 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoen daude, eta hainbat kirolek osatzen dute etapa hori: mini-eskubaloia, areto futbola, mini-saskibaloia, atletismoa, eskupilota... Etapa horretan, gazteek urtean barrena kirol horiek egiteko aukera izaten dute. Astean barrena entrenamendu saio bi egiten dituzte, eta zapatu goizetan, dagokien partidua jokatzen dute. Ikasleek gogotsu hartzen dute etapa hori.

Bestalde, etapa horietan parte-hartzea oso handia den arren, multikirolean datuak ez dira hain oparoak. Arrazoi asko daude, baina nagusia gazteek eskolaz kanpo egiten dituzten ekintza mordoan egon daiteke: ingelesa, informatika, solfeoa... Aipamen berezia merezi dute Aramaioko San Martin Herri Eskolako neska-mutikoen, adin horretan kirol zaletasuna handia da-eta. Etapa horretako gazteen %100ek eman dute izena AKPko ekintzetan.

Azkenik, laugarren etapa espezializazioa da, eta hor, Derri gorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleek gura duten kirola

aukeratzen dute.

XAKEA ETA SASKIBALOA

Otsailaren 16an (domeka), Arrasateko Xake Elkarteak gazteendako Gipuzkoako Topaketa antolatu du. Txapelketa 10 eta 14 urte bitarteko neska-mutiko guztiei dago zuzenduta.

Horrez gain, Arrasate Saskibaloia Taldeak otsailaren 9tik aurrera, domekero, saskibaloiko entrenamenduetan parte hartzeko aukera emango die Arrasateko alebin eta infantil mailako neska-mutikoei. Ekintza bi horien gainean berri gehiago gura izanez gero, ikastetxeetako kirol koordinatzaileengana jo.



ARRASATE KIROL PROIEKTUA

Domekero saskibaloian egiteko aukera izango dute Arrasateko gaztetxoek.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Etxerat	5-4
Komando Alpagat - You Know	0-6
Al Kaeda - NS/NC	4-10
Makanaki - Iriztu taberna	1-2
Betrayer - Lasagabaster	3-7
Maldifa's - Abocajarro	0-1
Goma-2 - Rayo Aldeano	1-0

B MULTZOA

El Ekipo A - AT Celaya	3-13
Etxina! - Aurrera Bolie	5-4
AC Surcos - Fuxxion	9-6
Bikain Akademia - Whiskeria	6-3
Koka Juniors - Estu Ta Larri	4-5
Billy & The... - Fraguol Gol	4-8
Saloga - Dribling.es.vg	0-1
Koka Juniors - Fuxxion	5-1

PARTIDUAK

OTSAILAK 1, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Estu Ta Larri - AC Surcos. K.Alpagat
11:00: K.Alpagat - Iriztu Tab. Estu Ta Larri
12:00: AT Celaya - Fuxxion. Iriztu taberna
13:00: Makanaki - Abocajarro. Fuxxion
14:00: Etxina! - Whiskeria. Abocajarro
15:00: Bikain Akad - Fraguol Gol. Whiskeria
16:00: El Ekipo A - Aurrera Bolie. Bikain Ak
17:00: Etxerat - NS/NC. Aurrera Bolie
18:00: Koka Juniors - Dribling. Etxerat

OTSAILAK 2, DOMEKA

11:50: Saukelu Scr - You Know. AC Surcos
13:00: Aurrera Bolie - AC Surcos. You Know

Atsedena: Goma-2, Betrayer, Al Kaeda, Lasagabaster, Billy & The Cowboys.

TALDE BAT GUTXIAGO

SALOGA TALDEA TXAPELKETATIK KANPO, PARTIDURA EZ AURKEZTEAGATIK

Aurtengo Zaldibarko Txapelketan egin beharreko gutzia eginda zegoela pentsatuta, Saloga taldeko jokalariek ez ziren joan den asteburuko partidura azaldu. Hori dela eta, Saloga taldea txapelketatik kanpo geratu da. Hori ez da zigor bakarria izan, You Know taldeko jokalariek batek partidua biko zigorra bete behar du-eta.

ZEINGEHIAGOKA INTERESGARRIA

Asteburuan, hainbat partidua interesgarri jokatuko dira, baina azpimarragarria domeka goizean jokatuko den lehenengo partidua da. 11:50ean, Saukelu Scream eta You Know! taldeak izango dira aurrez aurre. Sailekapeko hirugarrena lehenengoaren kontrara. Talde bi horien artean puntu biko alde baina ez dago.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOA

Kenci Arrasate - Consmetal
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Kenci Arrasate - BKL
Juniorrak. Zapatuan. 16:00. Musakolan.

ESKUBALOA

AGR Arrasate - Usurbil
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Leizaran - Arrasate
Big. seniorrak. Domekan. 11:30. Allurralden.
Donibane Lezo - Gatz Museoa
Kadeteak. Domekan. 10:30. Donibanen.
Bergara - Gatz Museoa Jakion
Gazteak. Domekan. 12:00. Labegaraietan.

FUTBOLA

Pedrusko - Mondra
Erregionala. Zapatuan. 18:15. Elgoibarren.
Hernani - Mondra
Ohor gazteak. Domekan. 15:30. Herreran.
Arrasate - Billabona
Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
Mondra - Eibartarrak
Neskak. Zapatua. 16:00. Atxabalpen.

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. You Know!	16	10
2. Iriztu Taberna	15	10
3. Saukelu Cream	14	10
4. Etxerat	12	10
5. Makanaki	12	10
6. Lasagabaster	11	10
7. Betrayer	11	10
8. Goma-2	11	10
9. Komando Alpagat	10	10
10. NS/NC	9	10
11. Abocajarro	8	10
12. Al Kaeda	5	10
13. Maldifa's	3	10
14. Rayo Aldeano	3	10

B MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	18	9
2. Dribling.es.vg	16	10
3. AT Celaya	13	10
4. Bikain Akademia	13	10
5. Koka Juniors	12	10
6. Fuxxion	12	10
7. Fraguol Gol	11	10
8. Aurrera Bolie	11	9
9. Etxina!	9	10
10. El Ekipo A	7	10
11. Estu Ta Larri	6	10
12. Billy & The Cowboys	6	10
13. Saloga	2	10
14. Whiskeria	2	10

ERRUGBIA

Eibar - Arrasate
Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Eibarren.

GINNASIA (ESKOLARTEKO TXAPELKETA)
A mailakoak. Zapatuan. 16:00. Uarkapen.

EMAITZAK

FUTBOLA

Erregionala: Mondra - Idiazabal	6-1
Ohor. gazte maila: Mondra - Sto Lizeoa	5-3
Kadeteak: Orioko - Arrasate	1-3
Big. kad.: Arrasate B - Bergara B	1-0
Neskak: Ilintxa - Mondra	1-2
Infantilak: Arrasate - Añorga	3-1

SASKIBALOA

Seniorrak: Alcad Atco - Kenci Arrasate	90-62
Juniorrak: Kenci Arrasate - Zarautz A	68-51

ESKUBALOA

Big. senior: Arrasate - Hegialde	18-20
Seniorrak: Donibane Côt - AGR Arrasate	22-30

PILOTA (UDABERRI TXAPELKETA)

Gazteak: Arrasate - Tolosa	22-19
Seniorrak: Arrasate - Zumarraga	22-17

ESKUBALOIA

Senior mailako bigarren taldea ezustea emateko puntuan egon zen

Pitxi Herreroren mutilek 18-20 galdu zuten bigarren postuan dagoen Legazpiren kontra

XABIER URZELAI

Arrasateko senior mailako bigarren taldeak ligan bigarren dagoen Hegialde Auto taldearen kontra neurtu zituen indarrak. Hegialde Auto taldea gol biko aldeagatik nagusitu zen, baina uste zuten baino lan handiagoa eginda.

Jesus Mari Herrerok entrenatzen dituen mutilak ezustea eman eta Arrasateko talde nagusiari mesede galanta egitekotan egon ziren. Azkenean, ordea, ezin izan zuten irabazi. Norgehiagoka amaitzeko bost minutu falta ziren arte, Arrasatekoak izan ziren aurretik, nahiz eta beti alde txikiarekin. Azken minutuetan, ordea, legazpiarrek bikain aprobetxatu zituzten Arrasatekoen hutsegite batzuk, eta kanpotarrek irabazi zuten (18-21).

Legazpiarrek goiko postuetan jarraitzen dute, eta liga amaieran, zurren, AGR Arrasatekin batera aurreko postu horien gainetik lehian ibiliko dira. Senior mailako bigarren taldeko jokalariek, beste behin, aurrean dauden taldeei aurre egiteko gai dire-



GOIATZ ARANA

Joan den asteburuan, norgehiagoka parekatua jokatu zuten Iturripen.

la erakutsi zuten, baina, tamalez, Jesus Mari Herreroren mutilek azken minutuak soberan egon ziren. Dena dela, Arrasateko talde gazteak itxura polita eman zuen ligako zazpiko indartsuenetariko baten kontra.

AGR ARRASATE ERRAZ NAGUSITU ZEN
Bestalde, senior mailako lehe-

nengo taldeak lehenengo postuetan jarraituko du, Donibane Cottal taldeari 22-30 irabazi eta gero. Bernardo Balerdiren mutilek Donibanen jokatu zuten partidua, eta erraz nagusitu ziren. Mondragoetarrak hasiera-hasieratik aurreratu ziren markagailuan, eta Donibanekoek ezer gutxi egin ahal izan zuten.

SASKIBALOIA

Kenci Arrasatek agur esan dio bolada onari, Donostian 90-62 galdu eta gero

Kenci Arrasate saskibaloia taldeak jipoi ederra jaso zuen joan den zapatuan Donostian. Mondragoetarrak aurreneko postuetan dagoen Atletico San Sebastian taldearen kontra neurtu zituzten indarrak, eta Iker Zubiriaren mutilek agur esan zioten ordura arte izandako bolada onari. Aldez aurretik arrasatearrek bazekiten norgehiagoka gogorra izango zela. Lehenengo bi laurdenak nahiko parekatuak izan ziren, baina partiduko bigarren zatian, donostiarren kontraerasoek min handia egin zuten.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Zapatuan, gimnasia erritmikoko A Mailako Eskola Arteko Txapelketa izango da Uarkapen

Zapatuan, gimnasia erritmikoa izango da ikusgai Uarkape pila-talekuan. A Mailako Eskola Arteko Txapelketa izango da jokoa eta Arrasateko hamaika gimnastak hartuko dute parte.

Arratsaldeko hiruretan, alebin, infantil eta kadete mailetako gimnastek tapiz pasea egingo dute. Gero, parte-hartzaileek desfilea egingo dute; eta arratsaldeko laurak aldera, alebin, infantil eta kadete mailetako txapelketa izango da. Eta, horren ondoren, gaiter te mailako tapiz pasea, lehiaketa eta desfilea izango dira.

XAKEA

Arrasateko Xake Taldea 0,5-3,5 nagusitu zen joan den asteburuan Gasteizen

Aretxabaletako Arlutz taldearen kontra galdu eta gero, Arrasateko San Andres Xake Taldeak jardunaldi biribila izan zuen joan den asteburuan Gasteizen. Mondragoetarrak erraz nagusitu ziren, eta, eskuratutako puntuei esker, berriro ere goiko postuengatik lehian dira. Euskal Ligako A mailara hiru talde baino ez dira igaritzen, eta Arrasateko taldea bosgarrena da 13 punturekin. Oraisan go asteburuan, Santurtziko taldea izango dute aurkari.

MARTXOAREN 8KO KARTEL LEHIAKETA 2003

2003ko martxoaren 8ko leloa:

“Martxoak 8, gure eskubidea delako!!!”

Edozeinek har dezake parte.
Neurria, gehenez ere, 50 x 70 cm.
Teknika librea izango da.
Kartelak testu hau izan beharko du derrigorrez: Martxoak 8, gure eskubidea delako!!!
Irabazleari 750 euro emango dizkiote.
Kartela 2003ko otsailaren 18a baino lehen bidali behar dira Udaletxeko Emakume Sailera.

Arrasateko Udaleko Emakume Saila
Tel.: 943 79 09 00
943 79 41 39

www.arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

KULTURA ETA OHITURA/ Urtero, Santa Ageda bezpera egunean, hainbat herritar kantuan eta eskean irteten dira

Santa Agedako koruak kantuan eta eskean irtengo dira, urtero moduan

IKER BARANDIARAN

Datorren martitzenean, otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera eguna ospatuko dute Arrasaten. Urtero moduan, goizetik iluntzera arte, hainbat herritar kaleetan eta auzoetan ibiliko dira eskean eta kantuan. Eta batzen duten dirua behar dutenei emango diete.

Datorren martitzenean, otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera eguna ospatuko dute Arrasaten. Hainbat herritar kantuan eta eskean ibiliko dira egun osoan. Eta, bide batez, etxez etxe, baserriz baserri eta lantegiz lantegi jasotzen duten dirua behar handiena dutenen artean banatuko dute.

Santa Ageda eguna aspaldi-aspaldiko kontua da, baina Santa Ageda bezpera egunean kantuan irten eta dirua batzeko ohitura *berriagoa* da. Gaur egun kantuan irteten diren beteranoe-tako batzuek esan zigutenez, 40ko hamarkadan, *El Octavo* ezizena zuen lagun talde bat hasi zen kale-ira irteten, kantuan eta eskean. Talde hartan zeuden, besteak beste,

Jose *Comunista*, *Txori*, Elias Ugalde eta Pagoaga. Geroago, 1957an, lagun talde gazteago bat ere hasi zen eskean eta kantuan irteten, eta garai baten, talde biak irteten ziren kalera, nor bere aldetik. Eta talde biek batutakoa ospitale zaharrera eramaten zuten, baina ez ziren batera irteten.

TALDE BIAK BATU

60ko hamarkadaren hasieran, baina, jasotakoa ospitale zaharrera batera eramaten hasi ziren; eta, horren ondorioz, batera kantatzen hasi ziren. Eta horrela jarraitu dute gaur egunera arte.

Santa Ageda bezpera egunean 50 bat lagun batzen dira. 08:00etan, San Juan Bautista parrokiaren meza entzuten dute. Horren ondoren, talde bitan banatzen dira: hala, nagusienak Bedoñara igotzen dira eta gainerakoek Musakolara jotzen dute. 14:00etan, talde biak udaletxean elkartzen dira, eta hantxe ere abesten dute. Gero, Leintz elkartearen bazkaltzen dute, eta arratsaldean berriro ere abesteari ekiten diote. Jasotzen duten dirua behartsuen artean banatzen dute koruek.



Irudian, Santa Ageda bezpera egunean kantuan eta eskean ibiltzen den lagun talde bat.

ARTXIBOA

03-04 ikasturterako aurrematrikulazioa zabalik 0-3 urte bitarteko Udal Haur Eskolan



Otsailaren 3tik 14ra

• **Non: UMEZAINTZAN**
(San Andres 8 /San Josepe auzoa)
Tel.: 943 77 20 25 /luz.:301

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa pertsonala egin gura izanez gero, aurretik telefonoz abisatu.



ARRASATEKO UDALA

Hezkuntza Saila ■

ANTZERKIA/ Granadako Lasal antzerki taldeak 'Zapatak' lana euskaraz eskainiko du

Lasal antzerki taldeak 'Zapatak' lana antzeztuko du, herriko umeendako

IKER BARANDIARAN

Lasal antzerki taldea Granadako dugu. Bada, hainbat kasualitateen ondorioz, euren lanetako bat, *Zapatak* izenburua duena, euskaraz ere prestatu dute. Antzezlari hori umeendako da eta etzi, domekan, eskainiko dute, Amaia Udal Antzokian.

Domekan, otsailak 2, Granadako Lasal antzerki taldeak *Zapatak* lana eskainiko du Arrasaten. Emankizuna 17:00etan izango da, Amaia Udal Antzokian, eta hiru euro kostatuko da.

Zapatak lana 3 eta 8 urte arteko umei zuzenduta dago. *Pablo* izeneko ume batek anaia txiki bat du, eta gurasoek anaiari eskaintzen dioten arretak jelskor jarri du. Gurasoek, *Pablo*-ren jarrerarekin haserre, zigortu egingo dute. Hala, logelan zapata kaxa bat aurkitu du *Pablo*-k, eta kaxarekin jolasten hasi da. Zapata txiki baten parearen bila hasi da, baina ez du aurkitzen. Horrekin batera, fantasiako istorio bat hasi da, eta ametszko pertsonaia batzuek zapatak aurkitzen lagunduko diote. Azkenean, zapata txikiaren pareak aurkitzean, zera ondorioztatuko du: bere pare anaia txikia dela eta hura maite duela.

GRANADAKO BIKOTE BAT

Lasal antzerki taldea Julia Ruiz eta Rosa Díaz granadarrek osatzen dute. Rosa, aurretik, La Vievel, Comedians eta Ur Teatro taldeekin lanean ibilia da. Julia, ostera, antzerkiaren gaineko ikerkuntza lanetan ibilia da. 90eko hamarkadaren bukaeran, La Vievel antzerki taldean elkartu, eta Lasal antzerki taldea sortzea erabaki zuten.

Lasal taldeak antzeztu zuen lehenengo lana *Comeme Cruda* izan zen, 1999an. Lan hura La Vievel taldean zebiltzala idatzi zuten, eta gerora, moldatu egin zuten. Nagusiendako antzezlana zen, eta inprobisazioan oinarritu ziren. Geroago, 2001ean, umeentzako *Zapatos* lana idatzi zuten; gero, *Zapatak* izenburupean euskarara moldatu zuten. Eta, azkenik, 2002an, *El gran traje* izeneko antzezlana prestatu zuten. Azken lan hori ere umeendako da.

UMEEI EGOKITUTAKO ANTZERKIA

Lasal taldeari izen hori jarri zioten gogoratzeko erraza zelako, eta berba biak (*la* eta *sal*) batu egin zituzten, "kapikua delako". Bestalde, Lasal taldeak joan den aspaldian umeendako antzezlana egiten dute.

"Umeei errespetu handia diegu. Antzerkia eta, orokorrean, gauzak ikusteko beste modu bat dute, baina ez dute edozer gauza onartzen, eta, horregatik, antzezlana asko landu behar dira".



Zapatak ikuskizunean, anaia txiki bat duen mutil jelskor baten istorioa kontatzen dute.

Lasal talde granadarraren 'Zapatak' antzezlana 3 eta 8 urte arteko umeendako da

Gasteizko eskola arteko ekimen batetik deitu, eta 'Zapatos' lana euskaratu zuten

Rosa Díazek eta Julia Ruizek urte asko daramatzate antzerkigintzan lanean

Andaluzek euskaraz antzeztuko dute!

Lasal antzerki taldea Granadako da, eta joan den aspaldian, umeendako antzezlana eskaintzen dute. Arrasaten *Zapatak* antzezlana egingo dute, euskaraz.

2002an, Gasteizko eskola arteko kanpaina baten arduradunek Lasal antzerki taldekoei deitu zieten, Gasteizen antzezlana euskaraz eskaini zezaten. Lasal taldekoek proposamena aztertu eta baiezkoa eman zuten: "*Zapatak* antzezlana oso testu laburra dauka. Testu luzeagoa

izango balu, ez genuke egingo. Izan ere, taldekook ez dakigu euskaraz".

Gasteizko umeek oso harrera ona egin zieten, eta horren ondoren, Zornotzan, Elorrioren eta Barakaldon antzeztu dute. Egunotan, Arrasatera etortzearekin bat, Gernikan eta Agurainen ere izango dira.

"Bitxia da horrelako hizkuntza baten antzezte. Gainera, herri bakoitzean testua hango euskalkiaren arabera moldatu behar izaten dugu".

LABUR

Extremadurako Ogi Mamien Eguna ospatuko dute

Etzi, domeka, Extremadurako Ogi Mamien Eguna ospatuko dute. Urtero moduan, Corazon de Encina taldeak ohitura horri eutsi dio, eta aurten, Arrasaten egingo dute. Berez, jaia sasoi berean antolatzen duten arren, urtero-urtero Debagoieneko herri bat aukeratzen dute.

Hala, domekan, Extremadurako ogi mamiak (migak) doan jateko aukera egongo da, Laubiden. Baina, ogi mami ez gain, besteak beste, urdaiazpikoa, txitxi-burruntziak, gazta, *pestiñoak*, erroskilak eta *loreak* izeneko gozo tipiko batzuk jan ahal izango dituzue. Ogi mamiak doan diren arren, gainerako jakiak eta edariak ordaindu egin beharko dira. Salmenta puntua 10:00etan zabaldu eta 15:00etan itxiko dute. Ordura arte, Laubide Extremadurako produktuen taberna-saltoki erraldoia izango da.

EXTREMADURAKO ERREZETA

Ogi mamiak Extremadurako jaki tipikoak dira: ogi xehatua hartu, oliotan frijitu, eta urdaia, berakatzatza eta piperrak botatzen zaizkio. Horrekin guztiarekin, Extremadurako ogi mamiak gertu dauz kagu.

Bestalde, Corazon de Encina elkarteak otsailaren 22rako beste jai bat antolatzen dabil. Informatuko zaituztegu.

Martxoaren 8rako Kartel Lehiaketa antolatu dute

Arrasateko Udaleko Emakume Sailak 2003ko martxoaren 8rako Kartel Lehiaketa antolatu du. Lehiaketa horretan edonork har dezake parte, teknika librea izango da eta kartelaren neurria, gehienez ere, 50x70 zentimetro izango da.

Kartelek honako leloa izan beharko dute derrigorrez: *Martxoak 8, gure eskubidea delako*. Lehiaketarako kartelak 2003ko otsailaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira, Udaleko Emakume Sailen.

Egilearen nortasuna azaldu barik eta atzeko aldean lelo bat duela aurkeztu behar dira kartelak. Horrekin batera, gutunazal itxi baten lelo bera eta egilearen datuak ageritu beharko dira.

Lehiaketaren irabazleak 750 euroko saria jasoko du (%20ko PFEZren atxikipena egingo zaio), eta saritutako lana Arrasateko Udalaren esku geldituko da. Hark, Udalak, kartela kaleratzeko eskubidea izango du.

E, TXO!

GUREGAIK/ INTERNET ETA LANA

EHUk webgune bat abian jarri du, gazteek lana bila dezaten

AINTZANE IRIZAR


Ikasleei eta enpresei zuzendutako webgune bi jarri ditu sarean Euskal Herriko Unibertsitateak. Webgune horien helburua da ikasleak eta enpresak elkartzea erraztuko duten bideak bultzatzea.

Praktiges eta Lanbila izena dute webgune bi horiek. www.praktiges-online.net webgunearen helburua da unibertsitateko ikasleei erakunde eta enpresetan euren ikasketekin lotutako praktikak egiteko bidea erraztea. Horrela, ez dute ibili behar izango hara eta hona, paperak betetzen, eskaerak egiten eta erantzunen zain.

Bestetik, www.lanbila-online.net webgunea dugu. Webgune

EHUko ikasleei enpresetan ikasketekin lotutako praktikak egitea erraztu gura diete

horren helburua da, batetik, ikasketak bukatu berri dituzten EHUko ikasleei lan esparruan barneratzeko erraztasunak ematea; eta bestetik, enpresei ere erraztasunak ematea, profesional kualifikatuak lortzeko. Webgune horretan, ikasleek aukera dute curriculumak sarean jarri eta lan



AITOR URIZAR

Unibertsitateko ikasleek eta ikasle ohiek erabili ahal izango dituzte webguneak.

eskaintzen berri jasotzeko.

Ikasketaren arabera daude sailkatuta enpresen eta erakun-

deen lan eta praktika eskaintzak.

Beharrezkoa da unibertsitateko ikaslea edo ikasle ohia izatea.

LOTSABARIK/ Ganix Lasa

“Fruta saltzaile izan gura nuen”

IKER BARANDIARAN

Ganix Lasak oso umoretsua dela erakutsi zigan. Horrez gain, *Lotsabarik*-en galderak erantzuteko ez zuen inolako lotsarik izan. Are gehiago, lotsabako samarra dela aitortu zigan.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Gauza mordoia, denetik. Gogoa daukat jostailu batekin etxean fruta saltzen ibiltzen nintzela. Horrez gain, suhiltzaile, sendagile... ere izan gura nuen garai batean.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Arrasaten bizi izango nintzateke, bikotearekin batera, eta lanean ibili gura nuke. Ordurako umeren bat edukiko dudala uste dut.

• Zein da, zeure iritzi, adin ideala?

18-19-20 urte. Orain naizena baino apur bat zahartxoago. Osasun ona, askatasuna, gidatzeko baimena atera dezaket...

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei eta familiari. Eta ikasketei ere lehentasun handiagoa eman beharko nieke.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Bilboko hurrengo alkateak. (Barreak). Hori baino gehiago, nik

neuk izango dudana etorkizunak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Egia esanda, oso gauza gutxi. Lotsabako samarra naiz.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Alde ona, umoretsua naizela. Eta alde txarra, ez naizela batere puntuala.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?


Begiak, nik neuk zein koloretakoak diren ez dakidalako.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Batez ere, begiei, irribarreak eta keinuei.


• Arrasaten ligatzen da?

Benetan ligatu gura duenak, bai, jakina.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko bigarren maila • ZALETASUNAK: Kirola, orokorrean; ikastea ez, behintzat
LIBURU BAT: 'Babilonia' • FILM BAT: 'El sexto sentido' • MUSIKA TALDEA: Txinparta • KIROL TALDEA: Drink Team

PUB HAIZEA



MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarriak

Zarugalde 38 • Tel.: 943 79 13 78

UGARAN

jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

ZUBIZARRETA

LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

BEHEKODENDATIK

Mentxu

GANESHA TATUAJE DENDAKUE

XABIER URZELAI

Mentxu oin dala lau urte hasi zan tatuajekin lanien, eta azken urtie bere kontu egin dau. Lagun batek erakutsi eutsen tatuajiek egitten, eta ondo ikasi dau, gaiñera. Mentxuk beti euki dau loturaren bat edo beste mundu artistikuekin, antzerki talde baten be ibilittakue da-eta: Tunantes del Norten taldien.

Amets bat?

Neure ametsak egi bihurketie.

Eta amets txar bat?

Ametsak egi ez bihurketie.

Egin dozun azken biajie?

Bartzelonara, lan kontuengatik. Bestela, Kubara, udan.

Txartel horixe, zeñei?

Euren gauzetan bakarrik pentsetan dauenei.

Eta gorrixe?

Politikuei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Los lunes al sol eta *Al otro lado de la cama* asko gustau jat / *Las voces del desierto* / Jamiroquai.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai, poliki-poliki, oso gogorra izan ez daixen, eta informaziñue emunda.

Eta prostituziñue?

Baita be. Prostitutek eskertuko leukie.

Ze dauketzu sobran?

Ezer be ez.

Eta faltan?

Lokala ordaindu, etxie ordaindu... (Barriek). Ezin gare kejav, pribilejiauek gara-eta.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

Etxeko zapatillak ala zapat-

tak?

Botak.

Ze gustetan jatzu Mondra-

guetik?

Bereziki ezer be ez. Gustora bizi naz hamen, baiñe beste nunbait be konponduko nitzake.

Alkate izengo bazitze, ze

hobetuko zeunke?

Batez be, etxebizitzaren arazue. Horretaz aparte, eskaintza kultu-



X.U.

“Lehen, tatuajiek marjinalak eukitten zittuen. Baiñe argi dago oin beste kontu bat dala”

rala gehixago bultzatuko neuke.
Eta lehendakari izengo bazi-

tze?
Aukera hori ez jat buruen sar-

Bizio bat?

Bat baiño gehixago dauket.

Ezagutu dozun pertsona in-

tersante bat?

Bereziki iñor be ez. Egunero ezagutu zeike norbait interesantie.

Eta ezagutu nahiko zeunke-

ena?
Tintin tatuaje egillie.

Telebisiñoko programa bat?

Dokumentalak gustetan jat.

Eta irratikue?

Arrasate Irratia entzuten dot.

Ia euskerie belarrire egitten jaten.

“Tatuajiek konpondu leikie. Izen be, jente askok konponketan dittu tatuaje zaharrak”

Zenbat tatuaje dittuzu?

Bi.

Esaidezu, nun ez zeuke egin-

go tatuaje bat?

Oin azpizen.

Gorputzeko atal kuriosoren

baten egittie tokau jatzu?

Batek esan eusten azazkala apurketako desietan euela. Okelan tatuaje egin, eta azazkala hazten danien tatuajie ikusten da.

Tatuaje txarto egin ezker,

badauko konponbiderik?

Bai, badago aukerie tatuajiek konponketako, gaiñetik margotu-

te; eta laserra be hortxe dago.

Nun geratu die *Amor de*

***madre* eta holako tatuajiek?**

Horreik aspaldiko kontuek die.

NIREBIDAIAHURA / Aitzol Lopez de Munain


Mexikora / 2002ko urritik abendura arte

Puerto Escondidon utzi genuen Aitzol joan den astean, Pazifiko aldean. Ikerrek eta Aitzolek hiru egun egin zituzten Puerto Escondidon. Gero, hegoalderantz jo zuten, eta San Agostinillora iritsi zirenean. “Herri txikia da San Agostinillo, eta ez zegoen gauza handirik. Gustura egon ginen han, eta astebeteko egonaldian inguruko herririk ikusteko aprobetxatu genuen”. Sekulako beroa pasatu zuten. Iker lehenago ere egonda zegoen Ertamerikan, baina aurreko aldiaren ez zuen horrenbesteko berorik pasatu. Kostaldean egon ziren egunetan lasai asko egon ziren: hamaketan etzanda, irakurtzen, inguruak ezagutzen, gura beste arrain jaten...

Kostaldetik Txiapaserako bidea hartu zuten. San Cristobal de las Casas-en hiru egun egin zituzten, baina Lacandonako oihanera joatea zuten helburu. Edozelan ere, ez zuten zorrikerik izan; izan ere, hara joateko bidaia antolatua zeuden, eta lau egun itxaron behar zituzten. Horren ondorioz, Palenquerako bidea hartu zuten, eta maien hondakinekin eta Agua Azuleko ur-jauziekin gozatzeko aukera izan zuten; ikusgarriak ei dira.

Baina Lacandonako oihanera joateko gogoarekin gertatu ziren. Hala, Palenquetik San Cristobal de las Casas-erantz itzuli eta Lacandonako oihanera igotzea lortu zuten. Hain zuzen, *Patria Nueva* komunitatean egon ziren, eta 15 egun egin zituzten han. Aste bi horiek bidaia politenak eta aldi berean, gogorrenak izan ziren: erreko ur hotzetan bainatu, taula gainean lo egin, sua piztu behar bazkaria prestatzeko... Nahiz eta baldintza gogorretan bizi, hango goek guztia zeukatela zioten: babarrunak, arroza, tortillak, artoa... “Hemen beste behar batzuei ematen diegu garrantzia”. Iker eta Aitzol brigadista moduan egon ziren *Patria Nueva*-n. Poliziaren joan-etorriak kontrolatzen ibili ziren, laguntza-guardia lanetan. Guk brigadistekin utziko ditugu bi mondragoetarrak, datorren astera arte.

XABIER URZELAI



Aitzol, Agua Azuleko ur-jauzietan.

“Brigadistek beste behar batzuei ematen diete garrantzia”

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



Hilbera
kafetegia

Uribarri etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

ZAHARRAREN ETXETIK



AITOR URIZAR

Adinak adin, edonorendako da egokia oroimen ariketak egitea. Toki-Argi elkartean oso fin ibiltzen dira.

Oroimenaren gaineko ikastaroak aurrera jarraituko du Toki-Argin

IKER BARANDIARAN

Toki-Argiko zaharren elkartean gogotsu hartu dute oroimenaren gaineko ikastaroa. Herriko beste zahar elkarte batzuetan moduan, Mercedes Acera psikologo-kliniko donostiarrak hila-betetan Toki-Argiko erretiratuei burmuinei eragiteko ikastaroa zuzendu du. Hilaren 15ean, Oroimen ikastaroko hastapen maila bukatutzat eman zuten. 20 bat lagunek hartu zuten parte: hama-bi emakumek eta zortzi gizonek, hain zuzen ere. Nagusia, 70 urte ingurukoa. Parte-hartzaileak oso gustura gelditu dira ikasitakoarekin, eta guztiak eman dute izena otsailaren 5ean hasiko den bigarren ikastaroan parte hartzeko.


Izan ere, Oroimen ikastaroan 20 lagunek hartu zuten parte, eta ez zuten jende gehiago onartu, muga hogeitaz gero dagoelako. Hortik gora jende larregi direla esan zigun Mercedes Acerak.

Otsailaren 5ean hasiko duten ikasturteak hilabete eta erdi

iraungo du, eta eguaztenero batuko dira.

TEORIAZ GAIN, PRAKTIKA ASKO

Mercedes Acera irakasleak teoria asko azaltzen die erretiratuei, baina ezagutza horiek praktikan jartzeari lehentasuna ematen dio. Oroimenaren gaineko eskoletan, besteak beste, letra-zopak egiten dituzte eta, era berean, irakasleak ahaztutako gauza bat gogoratzen laguntzeko trikimailuak era-



kusten dizkie. Horrez gain, irakaslearen esanetan, gehientsuenek eskuinekin, batez ere burmuineko eskuineko hemisferioa erabiltzen dute, gehienbat. Horren ondorioz, ezkerreko hemisferioa ez dugu behar beste erabiltzen. Arazo txiki hori saihesteko, ezkerreko eskuarekin egin beharreko ariketak agindu izan dizkie: ezkerrekin idaztea, esate baterako.

ADIN GUZTIETARAKO APROPOSA

Mercedes Acerak ARRASATE PRESSi azaldu dionez, adina aurrera doan neurrian neurona asko galtzen ditugu, eta horiek ez dira inoiz berreskuratzen. Neurona falta horren kaltea neurri handi baten saihesteko, burmuinari eragiteko ariketak egitea proposatzen du Acerak.

Era berean, oroimenaren gaineko ikastaroan ikasleen parte-hartzea oso garrantzitsua da. Are gehiago, parte-hartzea ezinbestekoa dela diote ikasle horietako askok. Eta ikastaroan parte hartzeaz gainera, etxerako lanak ere agintzen dizkie irakasleak.

LABUR

Abaroa zaharren elkarteak astebeteko txangoa antolatu du, maiatzerako, Castellora

Abaroa zaharren elkarteak txango polita antolatu du. Maiatzaren 11tik 18ra, Oropesa del Marrera eta Castello de la Planara joango dira, Marina D'Or hotelera. Izena emateko epea otsailaren 3an zabaldu eta martxoaren 15ean itxiko dute. 215 euro ordaindu behar dituzte joan gura dutenek. Abaroako bazkideek lehentasuna izango dute, baina bazkide ez direnek ere eman dezakete izena.

Toki-Argi zaharren elkarteak Abadiñoko San Blas azokara irteera antolatu du

Toki Argi zaharren elkarteak Abadiñoko San Blas azokara irteera antolatu du. Astelehenean joango dira, hau da, San Blas egunean. Goizean, azoka ikusiko dute eta horren ondoren, Gatikako jatetxe batera bazkaltzera joango dira. Bazkalostean, dantzaldia izango dute. Azkar ibiliz gero, oraindik izena emateko aukera dago. Hogei euro ordaindu behar dira.



Toki-Argiko Gabonetako otarraren irabazlea

Urtero moduan, Gabonetan, Santa Marinako Toki-Argi zaharren elkarteak Gabonetako otarra zozkatu zuen. Zozketa horrekin batzen duten dirua elkartearen ekintza batzuk finantzatzeko da. Mila txartel atera zituzten, eta berehala saldu zituzten elkartean eta tabernan. Otar ederra prestatu zuten: ohiko janari eta edariez gain, telebista ere bazuen otarrak.

Abenduaren 22an Espainiako Loteria Nazionalaren azkenengo hiru zerbakiak bat egin zuen txartela izan zen irabazlea: 703 zerbakia, hain zuzen ere. Irabazlea Santa Marinako Francisca Arrotxa izan zen. Zorionak, Francisca! /I.B.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Gorka ileapaindegia
peluqueria

erdi-egitegia
asteartetik ostiralera 09:30 - 20:00
larunbatetik 09:00 - 14:00
ferrerrias, 35 - 943 77 13 70




ARRASATE
Peru Bengoa
Otsailaren 3an, urte 2.
Zorionak! Senide guztien
partetik.



ARRASATE
Brigí González
Otsailaren 1ean, 36 urte.
Zorionak! Senarraren eta
seme-alaben partetik.



ARRASATE
Josu González
Urtarrilaren 27an, 17 urte.
Zorionak! Lagunak.



ARRASATE
Mikel Castillo
Otsailaren 5ean, 26 urte.
Zorionak, *Kastil* Lehengusak.



ARRASATE
Igor Sala
Otsailaren 4an, 25 urte.
Zorionak! T.M.T.



ARRASATE
Leire Eraña
Otsailaren 2an, 10 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Mikel Santiago
Urtarrilaren 28an, 4 urte.
Zorionak! Maite zaitugu.
Etxekoak.



ARRASATE
Alex Arana Barrutia
Urtarrilaren 29an, 5 urte.
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Ainhoa Sagasta
Urtarrilaren 25ean, 21 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Gorka Eraña
Urtarrilaren 29an, 12 urte.
Zorionak! Familiakoak.

Adi!

Argazkiak
emateko lekua:

Arrasate:

ARRASATE PRESS

Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu haren argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.
Argazkia urtebetetze eguna baino astebete lehenago ekartzea komeni da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Arrasateko gaztetxea zegoen lekuan zer egingo dute orain?
Eta gaztetxe berria non egingo dute?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

La Bella Easo madalenak
700g-ko poltsa

1,49€ 248pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIBEL MORALESrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maribel!
Galderen erantzun zuzena:
Goikobalu.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko armarria, herriko historiaren informazio iturri

JON ANDER RAMOS

Herriko armarria informazio iturri oparoa da: haren zati bakoitzak Arrasaten izan diren hainbat gertaeraren gaineko informazioa ematen digu. Hona hemen armarriaren deskribapena:

Armarriaren goiko aldean, soro gorriaren gainean, urrezko gaztelu bat azaltzen da. Gazteluaren albo bietan haritz bana azaltzen da, eta guztia, gaztelua eta haritzak, urrezko kate batekin daude lotuta.

Gazteluaren azpian urrezko herensugea dago, zelai berdean etzanda, urdin eta zilar koloreko uhinen artean.


Armarrian azaltzen den gaztelua desagerturiko Santa Barbarako gaztelua izan daiteke. Bi haritzek, berriz, Leintz eta Ugaran ibarrak sinbolizatzen dituzte. Herensugeak, berriz, herriko izenaren gainean dagoen kondaira adierazten du. Eta zuhaitzetatik zintzilik dauden kateek Navas de Tolosako borrokaldian arrasatearrek izan zuten parte-hartzea adierazten dute (1912).

Hala ere, dragoiaren ipuina adierazteko beste hipotesi bat

“Armarrian frantses ‘rococo’ estiloa nabari da. Apaindura askoko armarria da”

“Arrasateko armarriak zer adierazten duen zehazteko hainbat teoria daude”

ere badago, eta garai hartako testuinguru historikoarekin zerikusia duena, gainera: arrasatearrek zapaltzen zituzten jauntxoak irudikatuko lituzke dragoiak; gazteluak, berriz, Santa Barbaran zegoen gaztelua adierazteaz gain, Gaztelako erregearen nagusitasuna ere adieraziko luke. Horrelako kontuak aztertzerakoan, gaitza izaten da denok bat



ARRASATE GURE HERRIA

Arrasateko armarria informazio iturri oparoa da.

etortzea. Armarriaren esanahien gainean iritzi kontrajarririk daude; hortaz, bakoitzak aukeratu dezala gustukoena. Hauxe da, gaztelaniz, Arrasateko armarriaren kondaira:

Quando Arrasate primero, por su leal y guerrero, llamó al Rey Mondragón, donde nacen, donde son, los hombres fuertes de acero; viva dragón inflamado, Monte y Castillo real, que se

ganó en el Salado con las cadenas cercado del punto del Muradal.

Armarrian frantses rococo estiloaren eragina nabari da, apainketa askorekin.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko urtarrilaren 31 / 51. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02



UDALEKO ZERBITZU TEKNIKOAK

HBko, EHko eta Batasuneko zinegotzi izandako gehienak izan ziren eguazteneko batzarrean.

Alkatearen jarrera kritikatu zuten eguazteneko bilkuran

UBANE MADERA

Bilkura nahaspilatsua izan zen Aramaion joan den eguazteneko. Garzón epaileak egindako errekerimenduak piztu zuen zinegotzien arteko eztabaida. Aurrekontuen gaia hurrengo bilkurarako atzeratu zuten.

Besteak beste, HBko, EHko eta Batasuneko zinegotzi izandako gehienak azaldu ziren eguazteneko (hilak 22) bilkurara. Gai horren gainean euren iritzia azaltzea zen haien helburua. Horretarako, Amaia Aspe zinegotziak idatzi bat irakurri zuen, denen izenean.

Idatzi horretan, Garzónen errekerimendua dela-eta Iñaki Nafarrate alkateak egindakoa kritikatu zuen: "Ezkutuan eta isilean ibili da, neuk ere (...) prentsa bidez jakin dut errekerimenduaren berri, zer esanik ez gainerako guztiei ere ez zaiela ezer esan. Legez obligatorik ez egon arren, giza legea dela esango nuke".

Horrekin batera, gaineratu zuten eurek politikoki ez dutela ezer ezkutatzeko eta salatu zuten

"Erakunde Terroristako Kide Izaitea izeneko sumarioan, 286 herritar eta 150etik gora elkarte, enpresa eta erakunderen" izenak sartu dituztela, eta informazio hori guztiori Auzitegi Nazionalera bidali dutela. Horren ondorioz, herritarren eskubideak urratu zituztela adierazi zuen. Idatziaren bukaeran, Aspek bozketa egitea proposatu zuen: "Zure jokaera zurea den edo guztiok bat gatozen jakinaraziko diogu herriari".

ERANTZUNA

Txema Abarrategi zinegotziak hartu zuen hitza Amaia Asperi erantzuteko. Haren esanetan, alkateak ez du izan inoren eskubideak urratzeko asmorik.

Iñaki Nafarrate alkateak, berriz, adierazi zuen HBko, EHko eta Batasuneko kideek "biktimismo papera oso gustuko dutela". Esan zuen Garzónen eskaera alkatearen izenean bidali zutela, eta, erantzun ezean, ondorioak berarendako izango zirela; errekerimendu hori derrigorrez bete beharrekoa zela ere gogorazi

zuen. Bidalitako informazioaren gainean, berriz, esan zuen aktetan agertzen dena bidali dutela, ez besterik. Eta, gainera, Udaleko idazkariak lan handia hartu zuela informazio hori murrizten. Horren harira, publikoki eskertu zion idazkariari egindako lana.

Gai horrekin lotuta, batzar aretoan zeuden zinegotzi ohiek ere parte hartu gura izan zuten, baina alkateak ez zien hitzik eman. Horrek aretoko zinegotzien haserrea piztu zuen eta eurentariko batek *Faxismoari stop* zioen idatzia atera zuen.

AURREKONTUAK

Bestalde, 2003ko aurrekontuen gaia ere landu behar zuten zinegotziek batzarrean. Baina Amaia Aspe gaia atzeratzea exijitu zuen, lehenago ez zuen jaso-eta aurrekontuen berri. Hain zuzen ere, oraingo astean landu dute gaia, baina albistea idaztean batzarra egin barik zegoen eta ez daukagu erabakitakoaren berri. Datorren asteke zenbakian emango dugu aurrekontuen berri zabala.

Bittor Mendialdua, pozik, Landazuri sariarekin

UBANE MADERA

Familiak lagunduta, pozik hartu zuen Bittor Mendialdua organo jotzaileak Landazuri saria. Gasteizen eman zioten saria, eta ezin izan ginenez hara joan, Aramaion egon gara Bittor Mendialduarekin, sariketaren nondik norakoen berri jakiteko.

Armando Llanos eskultoreak egindako egurrezko lana eman diote Bittor Mendialduari. Hala, organo jotzaile aramaioarrak azken 50 urteotan egindako atsedeen bariko lan oparoa saritu gura izan du Landazuri elkarteak. Sari banaketako aurkezle Jesus Mari Estarrok adierazi zuenez, Aramaioko organoa berri zutenean, mezan abesten ibili zen Aramaion, eta han eman zioten Bittor Mendialdua organo jotzailearen merituen berri. Berehala, Landazuri elkarteak ematen dituen sarien artean, bakarka egindako saria hartzeko pertsona egokia zela ikusi zuen. Gaineratu zuen normalean Aramaio moduko herri txikiak garrantzia galtzen dutela Gasteizen parean eta, horren ondorioz, horrelako herrietan egiten diren ekimenak bigarren mailan egon

ohi direla.


Oro har, arrazoi bi horiek kontuan hartuta proposatu zuten Bittor Mendialdua aramaioarra Landazuri sariduna izateko.

OMENALDI EKITALDIA

Bittor Mendialduak esan zigunez, oso ekitaldi polita antolatu zuten Gasteizen Landazuri elkarteak. Mendialduatarrak ere han izan ziren, Bittorri babesa ematen. Besteak beste, saria eman eta gero, Bittorren omenezko kontzertua eman zuten. Horren ostean, han elkartu zen lagunendako luntxa eman zuten.

BITTOR MENDIALDUA

1951n ekin zion Bittorrek Aramaioko organo jotzaile izateari. Fidel Ibargutxiren lekua hartu zuen. Jaiegun handietan kantatzen ziren mezak antolatzeaz gainera, herriko hileta guztietan egon izan da 50 urteotan, baita beste-lako elizkizun xumeagoetan ere. Hori guztia inolako eten barik, profesionaltasun handiz eta musustruk egin du Bittorrek 50 urte luzeotan. Estarrok Gasteizen esan zuen moduan: "Orain, mereziz duzun atsedena hartu ahal izateko zure txanda hartuko duen aurki dezazun espero dugu".



Bittor Mendialdua, etxean, Landazuri saria eskuetan duela.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldedia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ZINEMA

Balto, la leyenda del perro esquimal filma emango dute.

ARETO FUTBOLEKO EMAITZAK

Zoritzarreko emaitzak ekarri dituzte oraingo astean. Kadete mailako mutilek lehenengo postua galdu zuten, 9-4 galdu zuten eta Olabideren kontra. Lau jokalaririk agertu ziren partidura, gainerakoak gaixorik zeudelako. Kadete mailako neskek, berriz, 7-5 galdu zuten Athleticoren kontra. Edozelan ere, neskek jokoa dezente hobetu dutela adierazi digute. Datorren astean, gazte mailako mutilek Urgatzi taldea izango dute aurrez aurre, 11:30ean, Aldabe kiroldegian; neskek Ekialderen kontra jokatuko dute, 11:30ean, etxean; eta kadete mailako mutilek Laudio Ikastolaren kontra dute partidua, 10:30ean, Laudion.

ISTRIPUA ORIXOL MENDIAN

Domekan, 67 urteko Bilbo-ko gizonezko bat hil egin zen Orixol mendian. Santa Krutzeko ermitara jaisten zebilela, labaindu eta haitzen artera jausi zen.

HIRIGINTZA

Herriko lanak zertan diren jakin guran, Zerbitzu Teknikoekin izan gara berbetan

Udal Zerbitzu Teknikoekin kontatu dugutenez, orain, eskolako saneamendua konpontzen dabilta. Pare bat aste dela hasi ziren eta oraingo astean bukatzea espero zuten. Kontua da jangelan urtero trabatu egiten dela uraren hodia; hori gerta ez dadin, hodia desbideratu egin dute. Hori bukatu eta bestelako zenbait konponketa egin ostean, eskolako lanen lehenengo fasea bukatuko dute. Edozelan ere, Zerbitzu Teknikoekin esanetan, oraindik ere lan mordo dago egiteko eskolan; are gehiago, dagoeneko egin dute eskolaren beharren zerrenda. Adibidez, igogailuaren beharra dute.

Arexolan ere hasi dituzte lanak. Oro har, azpiegiturak sartzan dabilta (ura, saneamendua eta gasa, esate baterako). Azaroran hasi ziren lan horiek egiten. Dagoeneko hobi septikoa egin dute, eta uda alderako guztia bukatuta izatea espero dute. 191.000 euroko aurrekontua dute lanok egiteko.



XABIER BERRIDI

Joan den astean hasi ziren eskolako saneamendua konpontzen.

Bestalde, parkeetan mahaiak ipintzeko dirulaguntza ere eman zioten Udalarik. Eta, atzerapenarekin, baina Andra Marin ipini dituzte mahai bi. Eta Marixekan beste lau ipini dituzte. Baina lanok bukatzea falta zaie, eta laster hasiko dira horrekin.

Bestalde, hiru auzolanetarako dirua ere eman diote Udalarik:

Andra Marin arekak egiteko (egin da daude); Berastegitik Ametzurainoko bidean arekak egiteko eta Barajuengo Urdiñe baserriko pista konpontzeko. Horrez gain, egiteko lanen artean, Matxinkale eta Santa Ana ermita konpontzea, eta kultura etxeko lanak bukatzea ere badira. Adibidez, motordun harmaila ipiniko dute kultura etxean.



Egokitutako garraio zerbitzuaren aukera

UBANE MADERA

Mugitzeko ahalmena mugatuta edo galarazita dutenei egokitutako garraio zerbitzua eskura dute aramaiokarrek. Hilean bi bider erabil dezakete, hileko lehenengo eta hirugarren eguenetan. Batez ere, aisialdiarekin lotutako ekimenak egiteko erabili ahal da.

Gurpil-aulkian daudenek, bi basitoirekin ibili behar izaten direnak, leku batetik bestera joateko beste pertsona baten beharra dutenek edo hiru urtetik beherako ezinduek erabili dezakete Zuiako Koadrilak eskaintzen duen garraio mota hori. Hilean bi bider erabili ahal dute egokitutako garraioa; hileko lehen eta hirugarren eguenetan, hain zuzen

ere, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Garraio hori erabili gura duenak Aramaioko Udaleko Gizarte Zerbitzura jo dezake, eguaztenetan, 12:00etatik 14:00etara, edo Aramaioko udaletxeko telefono zenbakira dei dezake, ordu eta egun berean (945 44 50 16).

Seguru asko, aramaiokar askok aprobetxatu dezakete zerbitzua.

ZERTARAKO?

Batez ere, aisialdiarekin lotutako ekimenak egiteko eskaintzen dute zerbitzu hori. Adibidez, zinemara joateko, igerilekura joateko edo, beste barik, Aramaioko ez den beste herriren batera egun pasa joateko. Bestalde, ezin izango da erabili, adibidez, sendagilearengana joateko eta antzeko beharretarako.

HERRIKO KONTUAK

ANBOTO

Anbotok, tontorra biluzik duen eta Ibarra iparraldeko aldean zutik dagoen egundoko haitz hark, misterioz betetako mundua gordetzen zuen bere zulo ezezaguneari, ibarreko bizilagunen iritziz.

Anboto iluntasuna zen, barnera ezina.

Han bizi ziren jeinu onak, baita espirituak ere.

Eta milaka eta milaka bider borrokatzen zuten elkarren kontra; eta hori gertatzen zenean, ibar osoa estuasunez begira egozten zen.

Izan ere, laino zerratuak mendien belzututako hutsuneak estaltzen bazituen, eta haitzari itsatsita egon eta gero desagertu egiten bazen, horrek esan gura zuen aingeru onek infernuko semeek ez zirela utzi euren haserreak gainezka egiten, eta mardikatutako euren lurretara baztertzen zituztela.

Horrexegatik desagertzen zen laino beltza eta hutsune ezezagunek irensten zuten. Izan ere, lainoa espirituen hats kirastua baino ez zen, eta orro isilarekin berriro ere lurperatzen zen.

'La dama de Amboto'
Sotero Manteli

LABUR

Espainiako gerran fusilatu zituztenen oroimenaren eta izen onaren alde lanean

Espainiako gerran fusilatu zituzten debagoiendarren aldeko batzordea eratu dute Arrasaten. Ibarreko udal guztiek (Aramaiokoa barne) eta zenbait boluntariok parte hartzen dute batzordean. Edozelan ere, batzordea zabalik dago gura duen guztiarendako, bereziki, fusilatutakoen senideendako. Oro har, Espainiako gerran erail zituzten debagoiendarren oroimena eta izen ona berreskuratzea da batzorde horren helburua. Taldearen aurkezpen ekitaldian emandako datuen arabera, gure ibarrean 95 lagun baino gehiago fusilatu zituzten, eta tardean aramaiokar bat ere bazen.

Sortu den batzorde horrek gaur, barikua, egin du aurreneko batzarra. Eta, aurrera begira, zenbait ekimen antolatuzeko asmoa du; adibidez, adierazpen instituzionala, omenaldia eta erakusketa.

Herriko abeltzainendako abisua kaleratu du Aramaioko Udalak

Udalerriko mendietako bazkalekuak ustiatu gura dituzten abeltzainei honako abisua egin die Udalak: euren izenean dituzten abere kopurua jasotzen duen Arabako Foru Aldundiko erregistroko agiria aurkeztu beharko dute Aramaioko Udalean. Otsailaren 28a baino lehen aurkeztu behar da eskatutako dokumentazioa. Eta egin ezean, bazkalekuen ustiapenerako interesik ez dutela pentsatuko dute. Horren ondorioz, animaliak beste leku batera eraman beharko dituzte, edo, bestela, legeak zehaztutako isuna ipiniko diete abeltzainei.

Astelehenean (hilak 27) aldatu zuten TVE1en emisiorako frekuentzia

TVEren lehenengo katearen emisiorako frekuentzia aldatu egin dute. Joan den astelehenean aldatu zuten, hain zuzen. Harrezkeror, 43. kanaletik emititu beharrean 8. kanaletik emititzen dute seinalea. Hortaz, etxeko telebista kanal horretara egokitu beharra dago. Kasu askotan, norberak egin dezake egokitzapena, baina, lortu ezean, antena teknikariari deitu behar zaio. Telebistako seinalea Muruko errepikagailutik hartzen duten herritarren gain du eragina aldaketa horrek. Horrek esan gura du aramaiokar batzuen gain ere izango duela eragina aldaketa horrek.

ERRETRATUZAHARRA

Txistulariak Santamas egunean

Joan den astean, txistulariak izan ziren *Arrasate Press*-ko protagonista, eta oraingo astean, erretratu zaharraren atalera ekarri ditugu.

1983-84. urtekoa da argazkia; txistularien jantziak ikusita, seguruenik Santamas egunekoa. Egun horretan, txistulariek diana egiten dute eta azokako erakusketa guztietatik pasatzen dira. Gure argazkia ganadu azoka egoten zen lekuan dago aterata, Cerrajerako bulegoen pareko (gaurko Mondragon hotela) zuzenean. Ganadua Cerrajerako aparkalekuan egoten zen, arbolei lotuta. Orain dela gutxi, aparkalekuak kendu eta oinezkoendako bidea egin dute.

Txistulari taldearen gainean, berriz, esan beharra dago dantza talde bietako txistulariak daudela argazkian. Garai hartan, jende dezente ibiltzen zen txistulari. Gogoratu beharra dago txistularien udal banda 1980an desagertu zela.

Argazkian txistulari asko agertzen den arren, ez dira agertzen dantza



taldeetan zeuden guztiak. Hona hemen argazkiko txistularien izenak, ezkerretik eskumara eta atzetik aurrera: Jabier Azpilikueta (atabala jotzen dabilena), Joxe-Julio Heriz, Angel Oruna, Ane Miren Iregi (aurpegia erdi tapatuta duena) eta Eugenio García. Aurrean, berriz, honakoak daude:

Karlos García (atabala jotzen), Heriberto Zubia, Susana Roa, Gotzone Bergara eta Agurtzane Mondragon.

Oharra: joan den asteko argazki zaharraren harira, esan genuen 1934ko erreboltan Guardia Zibilarren kuartela ere hartu zutela errepublikarrek. Eta

ez zen horrela izan. Kuartela erasotzen zebiltzala, Takolo inguruan soldaduak azaldu zirela abisatu zieten. Dena utzi, eta Herri Etxera joan ziren korrika.


Argazkia: Arrasateko Txistulariak
Informazioa: Iñaki Barrena
Urtea: 1983-84. urtea

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Arruena parkea eta Eroski

Musakolako Arruena parkea gauza askotarako erabiltzen dute: moto kontzentrazioak, zirkua, automobil erakusketak...

Arrasate handitzen dabil, eta handitzen dabilen neurrian, herriko kanpoko aldea txukun geratzen dabil. Parkeaz gainera, ondoan dagoen merkataritza etxea ere dezente aldatu da Uribe auzoan zegoen dendatik gaur egunera arte.



1990 Uribe auzoko Eroski 1978an ireki zuten. Eta Musakola auzoko Maxi Eroski, berriz, 1989ko azaroan inauguratu zuten.



2003 Gaur egun, merkataritza etxea Hiper Eroski bihurtu da. 1996an, berritze lanak amaitu eta merkataritza etxetik Hiper izatera pasatu zen.

ad **Ibabe**


IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



EGUZKI GRAF
inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea
Etxea 75
Faxa 75



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA
Bixente Ferrer 1
Tel.: 943 79 52 17

Landu zure barne energia eta lortu gorputzaren, espirituaren eta buruaren arteko oreka

"TAI CHI"

Teknika

Tai Chi-ren oinarria mugimendu geldoen segidan datza. Keinuen harmonia eta gorputzaren arintasuna garatzen dira, etengabe.

GIMNASIA TXINATARRA

Teknika

Osasun fisiko eta mentalerako gimnasia energetikoa. Akupuntura txinatarraren printzipioetan oinarrituta dago. Ariketa sinpleen bitartez, meridianetatik energia bideratzen da.

Onurak


- Nerbio sistema erregulatzen du (antsietatea, depresioa...), oreka erregulatzen du, erlaxatzen laguntzen du eta loaren erritmoa berreskurarazten du, memoriarendako eta kontzentratzeko ona da eta estresa kentzen du.
- Gorputzaren jarrera zuzentzen du, eta buru-argitasuna eta lasaitasuna errekuperatzen dira.
- Zirkulazioa hobetzen du, muskuluak eta artikulazioak gogortu eta tonifikatzen ditu eta itxura fisiko hobea lortzen da.

DEFENTSA PERTSONALA

Teknika


Autodefentsa sistema. Monje taoisten borroka-artetik dator.

- Taldekako lana
- Gorputza indartzea



Bushi-te Shorei

Talde mugatuak. Astelehenetik egubakoitzera eta zapatuetan. Adin guztietarako aproposa.



2003-2004



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

943 79 27 73



Haur Hezkuntza
0-2 urte

67€ hilean



Lehen Hezkuntza



Haur Hezkuntza
2-6 urte



eredua **D**



DBH

BITXORI
Ileapaindegia

Erdiko kale 52
Tel.: 943 79 88 32

